



Surrandien Dantza plazaratuko dute Durangon, Surrandien konpartsa berreskuratu zeneko 25. urteurrenean

Agenda • Mozorro eta kolorez jantzitako egunak ditugu aurretik. Heldu dira inauteriak, eta eurekin batera jai giroz beteriko egunak. Gaur hasi eta martitzen karnabalera arte hainbat ekitaldi izango da Durangaldeko herrietan. • **16-17**

Gazatik ihes eginiko 25 palestinarrek Berrizen hartu dute aterpe



Erreportajea • Azaroaren erdialdean, Gaza hiriko lau familia palestinar Berrizko Olakueta aterpetxera heldu ziren. Hile bi eta erdi egin dituzte bertan. Jaioterrian gertatzen dabilenak kezka eta ardua eragiten dizkie. Oraingoz, bizimodu berri bat hasiko dute Euskal Herrian. Eguenean, Berriztik Gasteizera lekualdatu ziren. • **2-3**



'Euskaldungak' estreinatuko dute Zornotzan

Kultura • Aroa Blanco eta Maite Lopez antzezleek 'Euskaldungak' antzezlana sortu dute; Durangoko Azokan saio laburra egin eta gero, bertsio luzea Zornotzan estreinatuko dute, otsailaren 16an. • **18**



MATRIKULAZIO EPEA
2024ko otsailaren
7tik 23ra

INFORMAZIOA:
94 428 01 01
Idazkaria@zelaieta.ikastetxea.net
<https://zelaieta.hezkuntza.net/>

San Trokaz, 7 48220
Abadiño





“Ez da bizitzen dugun lehenengo gerra, baina honako honek ez du neurririk, urrutiegi joan da”

Gazatik ihes egitera beharturiko 25 herritar palestinarrek Berrizko Olakueta aterpetxean hartu dute babes azken hiru hilabete hauetan. Eguenean Gasteizera lekualdatu zituzten

PALESTINA • E.H. / A.R.

Lau familia dira guztira. Bozera-maile legez, familietako guraso bik erantzun dizkiete ANBOToren galderei, Issam Abushammalak eta Ihab El Hindik.

Noiz eta zelan ailegatu zineten Berrizera?

Issam Abushammala: Azaroaren 16an ailegatu ginen hona. Espainiako gobernuak Jerusalemen daukan enbaxadaren laguntzari eskerrak heldu ginen, hegazkin militar batean. Gazako hiritarrak gara, eta familiako kideen artean hiritartasun espainiarra duten kideak ditugunez, handik irteteko zortea izan dugu. Nire kasuan, adibidez, alabetariko bat Espainian jaiotakoa da. Espainiako hiritartasuna du. Eta berari eskerrak, familiako kide guztiok irten ahal izan dugu handik. Baina, tamalez, kontuan hartu behar da Gazako zerrendan bi milioi biztanle daudela guk izandako

aukera bera eduki guran, handik irten guran.

Zelan bizi duzue Palestinan eta bereziki Gazan gertatzen dabilena?

I. A.: Unibertsitate ikasketak ditugun herritarrak gara. Orain hogeitabat urte amaitu genituen ikasketak, Espainian. Eta bake prozesua hasi zenean Palestinara joan ginen, hemen ikasitakoagaz han laguntzeko. Unibertsitatean irakasle hasi ginen, lana topatu genuen, eta bizimodua han eratzen hasi ginen. Eta, halako batean, egun batetik bestera, Berrizen gaude. Ez dut berbarik topatzen gertatu dena deskribatzeko. *Lurrikara* berba gutxi da. *Desastre* berba labur geratzen zait. Ez da bizitzen dugun lehenengo gerra, baina honako honek ez du neurririk, urrutiegi joan da.

Gerra hau zertan da desberdina?

Ihab El Hindi: Gertatzen dabilenak edozeinen onarpen eta irudimen mailak gaintzen ditu. Ezohikoak diren baldintzetan bizitzera ohitu-

ta dagoen herria gara, jaiotzen garenetik presiopean bizi gara. Gaza munduko kartzelarik handiena da. Eta jendea ahalegintzen da kartzela horren barruan, ahal duen neurrian, ahalik eta ondoen bizitzen. 2006tik hona bost bat gerra bizi izan ditugu. Orain arte denerik galitzen zen: eraikinak, etxeak, eskola bat,... baina erasoak amaitutakoan beti geratzen zen bizitzagaz aurrera egiteko zerbait. Gerra honetan, oster, ez da ezertxo ere geratzen. Ez eraikinik, ez lanik, ez azpiegiturarik. Kasurik onenean gerra eteten bada ere, adimenik handiena duenak ere ez du jakingo zer egin, tresna guztiak faltako dituelako dena berreraiki eta guztiari berrekin ahal izateko. Israelgo estatua ezarri zenetik hona, gure herrialdeak bizi duen egoerarik gogorrena da hau. **Gerra lehertu baino lehenago, zelakoa zen bizimodua han? Zertan lan egiten zenuten?**

I. A.: Nik Palestinako unibertsitate prestigiotsu batean lan egiten nuen, Al-Azhar unibertsitateko farmazia fakultatean. Irakasle katedratikoa naiz. Dena nuen antolatuta: etxea, autoa, soldata... Oso ondo bizi nintzen. Politikan ez nintzen sartzen. Zientzialaria naiz eta politika ez zait askorik interesatzen. Jubilazioan pentsatzen nengil. Orain, hemen, dena hasi behar dut zerotik.

I.E.H.: Ni medikua naiz. Torax eta digestio kirurgian doktoratua. Gazako eta Palestina osoko ospitalerik handienean lan egiten nuen, Al-Shifako ospitalean. Irakasle lanak egiten nituen irakasleentzat, belaunaldi berriak hezten, radio-

logia eta kirurgia klaseak ematen. Ekonomikoki ondo bizi ginen, beharizanak beteta eta hile amaierara egoki ailegatuta. Lehenago esan dudan moduan, munduko kartzelarik handiena da Gaza, eta jendea ahalik eta ondoen bizitzen ahalegintzen zen. Gazako hondartza handia da, udan gozatzekoa. Hirian kasinoak zeuden, klubak, kafetegiak, jatetxeak. Kartzela izan arren, gauza erakargarri asko zuen. Modu erosoan bizi zitezkeen.

Eta zelan ikusten duzue etorkizuna?

I. A.: Orain gure seme-alabei laguntzea da gure lehentasuna. Umeen eskolak, umeek gaztelania ikastea, egoera ulertzea, adaptazioa,

Israelgo estatua sortu zenetik bizi izan dugun egoerarik gogorrena da honako hau

etxebizitza, alokairuak, eta paper kontuak kudeatzea. Arlo profesionalean ezin dut pentsatu, oraingoz. Adibidez, nik ezin dut Euskal Herriko Unibertsitateagaz ezertxo ere egin, paper arautuak izan arte. Gainera, jada ez gara hain gazteak kontratatutako izateko.

I.E.H.: Ezin dugu etorkizunean pentsatzen hasi Gazan gertatzen dabilena amaitu arte. Anaia dut han, osaba, izebak. Horrenbestez, ezinezkoa zaizu beste ezertan pentsatzea. Egunero heltzen zaizkizu albiste txarrak: familiako kideren bat, lagunaren bat edo lankideren bat

hil dutela. Egoera hori eten arte ezinezkoa da etorkizuna irudikatzea. Ahalegina egin arren, ezin duzu.

Zelan baloratzen duzue nazioarteko estatuek duten posizioa Palestinan gertatzen dabilenaren aurrean?

I. A.: Ez dut ulertzen gertatzen dabilen guztiaren aurrean, hainbeste urteren eta akordioaren ondoren, nazioartekak zelan onartzen duen errugabea den herrialde bati horrelako zerbait egitea. Gure herriaren askatasuna baino ez du gura. European, Espainia da guganako atxikimendurik handiena erakusten duen herrialdeetariko bat. Baina bere eragina ez da nahikoa. Nazioartean sinaturiko akordioek bete barik jarraitzen dute. Sarraski hau eten egin behar da, Israel presionatu egin behar da. Gure lurren %80 hartu dutela azaldu behar da. Askatasunen bat behar dugu, eta bakea eraki, hau guzti hau gehiegizkoa da eta.

I.E.H.: Nire iritzia da Palestina eta arabiar herrialdeak dezepzionatuta daudela Mendebaldearen jarraz. Ez dira Mendebaldeaz fio. Hipokresia maila guztiak gaintu dira. Askatasunaren eta Giza Eskubideen defendatzaile den Mendebaldearen jarrera guztiz ulertezina da. Era berean, kontraesankorra da Ukrainako inbasioaren aurrean Ukrainari defendatzeko eskubidea duela aitortzea eta milioika euro inbertitzea, eta urtebeteren buruan, herrialde okupatu bati egiten zaion sarraskiaren aurrean jarrera aldatzea. Hamasek egin dituen operazioen aurrean, guztiz neurrigabea da Israelek eragindako sarraskien magnitudea. Egoera honetan gorrotoa dabil gailentzen, eta belaunaldi berriak gorrotoan hazten dabilta. Eta, bien bitartean, mundu osoa telebistaz ikusten dabil gertatzen dabilena.

Zein irtenbide desiratzen duzue?

I. A.: Bakea, bakea eta bakea. Nahikoa da. Herritar arruntak gara eta eskubide osoa dugu herritar arruntek duten bizimodua izateko. Nire semeak hamabost urte ditu eta zazpi gerra bizi izan ditu orain arte. Zortekoa izan da eta bizirik irten du. Baina hurrengoan? Behin betiko irtenbide bat gura dugu, orain.

I.E.H.: Hau guzti hau asko luzatzen dabil, Netanyahu badakielako hau amaitzen bada bere azkena dela. Edo nazioartean epaituko dute, edo ihes egingo du AEBetara. Lehenengo, dena eten dadin gura dugu, hildako gehiago ez egotea, min gehiago ez egotea. Gero, preso dauden palestinarren askatzea gura dugu. 11.000 inguru dira gaur egun. Su eten luze bat behar dugu, herritarren itxaropena eta bizi proiektua berriro ere martxan ipini dadin. Berdin Gaza berreraikitze materiala sartu dadin. Azkenik, Estatu Palestinarraren sorrera behar dugu.

"Berriztarrek egin diguten harrera eredugarria izan da"

BERRIZ • E.H./A.R.

Gazatik Berrizera etorritako lau familiek esker oneko berbak baino ez dituzte herritarrek erakutsitako elkartasuna definitzeko. Ihab El Hindik honela azaldu du: "Hegazkinean 180 bat herritar etorri ginen. Espainiara heldutakoan, hiru multzotan banatu gintuzten, eta batzuei Euskal Herria egokitu zitzaigun. Berriz, hain zuzen ere. Egia esan, berriztarrek egin diguten harrera eredugarria izan da. Eta ez gaitu harritzen, euskal herritarrek beti izan dutelako borroka egiten duten herrialdeenganako elkartasuna. Euskaldunak oso eskuzabalak dira laguntzerako orduan. Hilabete hauetan bietan, berriztarrek ahal duten guztian lagundu digute. Besoak zabalik hartu gaituzte. Aterpetxeokokin ere oso esker oneko gaude".

Irudietan, El Hindi familia (goian ezkerrean), Abushamala familia (goian eskuman), Moheisen familia (behean ezkerrean) eta Sabbah familia (behean eskuman).



Genozidioaren aurkako adierazpenak onartu dituzte Durangon eta Otxandion


Herri bietako udaletxeetako balkoietan Palestinako bandera ipini dute herrialdeagazko elkartasun keinu legez

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Durangoko eta Otxandioko udalek adierazpen instituzional bana kaleratu dute palestinarren kontrako genozidioa salatuz eta elkartasuna adierazteko. Durangon, testu instituzional bat adostu dute EH Bilduk, EAJk, PSE-EEk eta Herriaren Eskubideak. "Durangoko bonbardaketaren herria gara, eta badakigu zer gertatzen den hegazkinetatik hirietara, jendearengana, bonbak jaurtitzeko direnean. Gatazka armatuek eta mehatxupearan bizitzeko beldurrak zer suposatzen duten ere badakigu. Biztanleria zibila, inoiz helburu militar izan ezin dena, blokeatuta dago orain urte

batzuetatik, mundu osoko aire zabaleko kartzelarik handiena deitzen duten horretan. Ezin gara isilik egon genozidio honetan; presazkoa da su etena behartzea", adierazi dute.

Otxandion ere, antzera. Bertako udalak herritar talde batek helarazitako adierazpena onartu zuen udalbatzan. Adierazpenean dozena bat puntu jaso zituzten. Adibide legez, honako hauek: "Otxandioko Udalak erasoak berehala gelditzeko eskatzen du, eta Israelgo armada Palestinatik guztiz erretiratzeko. Palestinaren subiranotasunerako eskubide osoa eta lurralde-osotasuna guztiz babesten eta errespetatzen



Palestinako bandera Durangoko udaletxe bakoian.

ditu" eta "Otxandioko Udalak bat egiten du Israeli boikot ekonomikoa egiteko deialdiagaz, eta konpromisoa hartzen du Israelgo

jatorria duten produkturik ez erosteko edo haiei kontrataziorik ez egiteko". Arrazoi horiek guztiak direla eta, Otxandioko

eta Durangoko udaletxeetako balkoietan Palestinako bandera ipintzeko erabakia hartu dute udal biek.

Durango komertzioetan euskara sustatzeko dekalogoia aurkeztu dute

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Mankomunitateko Landue proiektuaren, Durango Udalaren eta Dendak Bai elkartearen artean, Durango tokiko negozioei begirako dekalogo bat sortu dute. Ostalariei, merkatariari eta zerbitzu enpresei euren negozioetan euskararen erabilera sustatzeko eta lehiakortasunean eragiteko erreminta praktiko bat eskaintzea da egitasmoaren helburua.

Arlorik arlo, tresna sortu berriak irizpide praktikoak jasotzen ditu euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko. Adibidez, honako atal hauek batu dituzte: irudia eta errotulazioa, inguru digitalak eta herritarren arteko hartu-emanak.

Esperientzien trukaketa

Dekalogoia eguaztenean aurkeztu zuten, Durango Elkartegian. Besteak beste, Durangaldeko es-

tablezimendu batzuetan eginiko lanak azaldu zituzten. Horrez gainera, On Ekin nutrizio etxeak eta Saltsan katerin etxeak euren eguneroko jardueran eta sare sozialetan euskara lantzeko dituzten metodoak kontatu zituzten. Ekitaldiaren amaieran, Bizkaiko Foru Aldunditik, Mankomunitatetik eta udaletik eskuragarri dauden diru laguntzen gaineko informazioa plazaratu zuten.



Dekalogoia Elkartegian aurkeztu zuten, eguaztenean.

Etorri berriek zabalik dute oinarrizko euskara ikastaroetan izena emateko epea

Ikastaroa 16 urtetik gorako eta euskaragaz hartu-emanik ez duten etorri berriei zuzenduta dagoela azaldu dute



AISA ikastaroetako artxibo irudia.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango Udalak AISA ikastaroa ipini du martxan, etorri berriek euskal gizartea, euskara eta kultura ezagutzeko ikastaroa. Saiotetan, eguneroko kontuei buruzko lehenengo irakaspenak izango dituzte, agurrak, zenbakiak, familia, eskola, garraioa, osasuna, kirola

eta merkataritzaren landuta. Ikastaroa 16 urtetik gorako eta euskaragaz hartu-emanik ez duten etorri berriei zuzenduta dago. Programak 60 orduko iraupena izango du eta doakoa izango da. Interesdunek Udaleko Euskara Sailera jo dezakete izena ematera. Inskripzio epea otsailaren 14an amaituko da.

Aramotz eta Herria auzo elkarteek 1.110 euro batu dituzte Hamadako Izarrak elkartearentzat

Joan zen asteburuko Txixiburduntzi Egunean eta Santa Ageda egunean batu zuten dirua

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Durango Herria Auzo Elkarteak Txixiburduntzi Eguna ospatu zuen joan zen asteburuan, eta Aramotz elkarteak Santa Ageda koplak abestera irten zuten. Ekimen bietan jaia eta elkartasuna uztartu, eta dirua bildu zuten. Txixiburduntzi Egunean 840 euro batu zituzten, eta Santa Ageda egunean 270 euro. Ekimen bietan baturiko 1.110 euroak Hamadako Izarrak proiektura bideratu dituzte.



Aramotz elkarteak, Santa Ageda egunean.

Inauterietarako segurtasun neurri bereziak Durangon

Zaintza indartuko dute jendea kale-edana egiteko batzen den eremuetan. Kontrolak egingo dituzte Alde Zaharrean

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango Udalak neurri bereziak hartuko ditu inauterietarako. Udal-tzaingoak eta Ertzaintzak segurtasun protokoloa landuko dute elkarrengatik. Batetik, zaintza indartuko dute jendea kale-edana egiteko batzen den eremuetan. Poliziek kalean edatea debekatu dagoela gogoraziko diete kalean edaten daudenei. Ohar-tarazpenak egin eta jaramonik

egin ezean, isunak ipiniko dituztela aurreratu dute, eta berdin jokatu dute bizilagunak eragozten dabilzanekin. Bestalde, segurtasun kontrolak indartuko dituzte Alde Zaharrean eta inguruetan, jende pilaketarik handienak bertan aurreikusten dituztelako. Garraio publikoan ere egingo dituzte kontrolak, arma zuriak atzemateko, eta zorroen zein mugikorren lapurretak saihesteko.

anboto

**Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa**

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

**2024ko otsailaren 9a
22. urtea - 967. alea**

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

**DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Etxebizitza tasatuen ordenantza sortzeari ekin diote Durangon

Herritarren ekarpenak jasotzeko partaidetza prozesua zabalik dago udalaren web orrian, martxoaren 5era arte

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak etxebizitza tasatuen ordenantza sortzeari ekin dio. Arau berriak "sustapen libreko etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunak dituzten familiei etxebizitza eskuratzeko laguntza" izango du helburu, udal iturriek azaldu dutenez. Ordenantza etxebizitzaren, lokalen eta eraikinen ezaugarriak jasoko ditu, babes sozialeko eta bizigarritasuneko etxebizitzaren araudi teknikoak beteta. Besteak beste, honako eremu hauek arautuko

dituzte: kalifikazioa, prezioak, errentak, lurzorua eta urbanizazioaren gehieneko kostuei dagokien ehuneko eta esleitzeko modua.

Ordenantza eratzeko prozesu honetan zehar, herritarrek euren iritzia plazaratzeko aukera izango dute. Horretarako, udalak parte hartze prozesu bat ipini du martxan partehartu.durango.eus atarian. Durangarrek martxoaren 5era arteko epea izango dute iritzia eta ekarpenak modu horretan egiteko.



Etxebizitza blokeak Durangoko Martxoaren 8ko Kalean.

Garrastatu, EH Bilduren Bizkaiko hautagaitzaren buru izateko bidean

Alderdiaren oinarri militanteak halantxik onartzen badu, Durangoko alkate ohia izango da zerrendaburua

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Ima Garrastatu Urbaneja Durangoko alkate izanikoa eta gaur egun zinegotzi dena izango da EH Bilduren Bizkaiko zerrendaburua Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, ezker subiranistaren oinarriek herrialdeko

Mahai Politikoaren proposamena berresten badute. Halaxe jakinarazi du EH Bilduk ohar batean. Koalizioaren oinarri militanteak otsailaren 15etik 17ra bitartean egingo den bozketan erabakiko du Garrastatxuren hautagaitza berretsi ala ez.



Ima Garrastatu Durangoko alkate izan zen 2019-2023 legealdian.

ZUOK egitasmoa sortu dute Zornotzan, gazteen parte hartzea sustatzeko

Udalak 20tik 28 urtera arteko begirako bost lan saio antolatu ditu gazteentzat funtsezkoak diren arloak jorratzeko

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak ZUOK egitasmoa aurkeztu du, gazteen ahotsa entzuteko eta euren parte hartzea sustatzeko. Ainhoa Salterain alkateak azaldu duenez, "komunikazio eta parte hartze kanal zuzena" sortu gura dute herriko gazteekin, euren "kezka, nahiak eta proposamenak jasotzeko". Egitasmoa gauzatzeko, bost lan saio egingo dituzte gaz-

teekin. Horieta, gazteriarentzat funtsezkoak diren arloak jorratu dituzte. Adibidez, aisialdia, emantzipazioa, prestakuntza, enplegua eta gazteek proposatzen duten beste edozein gai. Koldo Bilbao zinegotziak argitu duenez, jardunaldi guztiak Zelaieta zentroan egingo dituzte, zapatuetan, 10:00etatik 13:00etara. Datak honako hauek izango dira: otsailaren 24a, martxoaren 16a,

apirilaren 27a, maiatzaren 18a eta ekainaren 15a.

"Taldea anitz eta adierazgarria"

Zehazturiko bost jardunaldiei begira, 25-30 gazte arteko "taldea anitz eta adierazgarria" sortu gura du udalak. Horretarako, hautaketa bat egingo dute izena ematen duten denen artean, generoa, adina, bizilekua, kultura-jatorria eta ikasketak maila irizpidetzat hartuta. Era berean, lan saioetan parte hartzen duten gazteei "konpromisoa eta parte hartze aktiboa aitortzeko asmoz", udalak 500 euroko konpentsazioa emango dio bakoitzari. 100 euro bertaratzen diren saio bakoitzeko. Izena emateko, Zornotzako Udalaren web atarian dagoen inprimakia bete daiteke, edo zuok@amorebieta.eus helbidera idatzi, otsailaren 16a baino lehenago.



Ainhoa Salterain alkateak eta Koldo Bilbao zinegotziak aurkeztu zuten egitasmo berria, martitzean.

Ezpalak, Perlata, Arkada Social eta Azken Sustraiak taldeak ZorBer Fest jaialdian

Zornotza Berpiztuz elkarteak ZorBer Fest jaialdiaren bigarren edizioa antolatu du otsailaren 17rako. Kontzertuak Zelaieta parkeko karpan izango dira, 18:00etan

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Iazko edizioak izandako arrakastaren ondoren, ZorBer elkarteak kideek ez dute zalantza izpirik izan. Jaialdiaren bigarren edizio bat antolatzea erabaki dute. Rock festibala otsailaren 17an egingo da, Zelaieta parkean egongo den karpan. Honako talde hauek arituko dira oholtza gainean: Ezpalak, Azken Sustraiak, Perlata eta Arkada Social. Jaialdia 18:00etan hasiko da. Sarrera doakoa da.

Bestalde, jaialdian bertan, errifak zozkatuko dituzte. Hainbat sari banatuko dute. Besteak beste, Uxarte sagardotegian afariak eta herriko komertzio batzuetan gastatu ahal izateko kontsumo bonuak.



Ezpalak talde zestoarra izango da Zornotzan taularatuko den taldeetariko bat.

Gerra zibileko gudari baten hezur-hondarrak aurkitu dituzte asteburuan Saibigain mendian

Aranzadi Zientzia Elkartek eta Euskal Prospekzio Taldeak aurkitu dituzte hezurak, Abadiñoako Saibigain mendian

ABADIÑO • JOSEBA DERTEAN

Aranzadi Zientzia Elkartek eta Euskal Prospekzio Taldeak gerra zibileko gudari baten hezur bi aurkitu eta atera dituzte asteburuan Abadiñoako Saibigain mendian. Hezurak beheko gorputz-adar batekoak dira. Dirudienez, bitan apurturiko femur batenak dira,

baina analisi antropologiko batek zehaztuko du hori. Aurkikuntza Saibigain mendiaren tontorretik (954m) gertu dago, zoruaren gainazaleko geruzan, pista batetik gertu.

Lurpetik atera dituzten hezurrez gainera, Euskal Prospekzio Taldeak eginiko miaketa kanpai-

nan metraila-hondarrak eta munizioa aurkitu dituztela jakinarazi du Jaurlaritzak ohar baten bitartez; baita objektu pertsonalak ere; hala nola hebillak eta borrokalarrien janzkeraren hondar metalikoak.

Bestalde, Nerea Melgosa Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak iragarri du "datozen hileetan" ere jarraituko dutela inguru horretan bilaketa lanak egiten, Urkiolako parke naturaleko inguru horietan miaketa baimena 2024ra luzatu eta gero. Parke Natural lege babesturiko eremua denez, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak baimena eskatu zion Bizkaiko Foru Aldundiari prospekzioak egin ahal izateko. Kanpainaren emaitza positiboa ikusita, Bizkaiko Aldundiak berriro egin du baimena, lanean jarraitu dezaten.



Domekan Saibigainen ataratako argazkia.

Kanpanzarren tunela egingo dute Elorrio eta Arrasate lotzeko


Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiek lankidetzaz hitzarmena sinatu dute. Orain eraikuntza proiektua idazteko unea da

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak asteon eman dute hitzarmenaren berri. "Giltzarri bat falta zitzaigun Gerediaga-Beasain errepidea amaitzeko: Kanpanzar gainekoa. Eta akordio horregaz giltzarri horri bide emango diogu", adierazi du Imanol Pradales diputatuak. 830 metroko luzera izango duen tunel bat egitea da asmoa, Kanpanzarren. Gorako bidean errei bi izango ditu, eta bat behekoan. Bide berriagaz, Elorrio-Igurria tarteko bihurguneak kentzea aurreikus-

ten dute. "Errepide zabal, azkar eta seguru bat lortuko dugu", gaineratu du Maria Ubarretxena Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatuak.

Hitzarmena sinatuta, lehenengo faseari ekin diote; hau da, eraikuntza proiektua idazteari. Pradalesen berbetan, idazketa prozesu hori lizitazioa aterako dute, eta urte amaierarako eraikuntza proiektua idazten hastea aurreikusten dutela azaldu du. 42 hilabeteko epea egongo da idazketa prozesurako, eta 6 milioi euro ipiniko dituzte.



Maria Ubarretxena eta Imanol Pradales.

Umeak eskola txikitik irtenda, eraikina Atxondoko Udalaren esku geratuko da

Azpiegitura konpondu eta bertan haurreskola egin gura dute

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Orain arte, Haur Hezkuntzako umeak erabili dute Apatamonasterioko eskola txikia. Bertako gela bitan egon dira, baina dagoeneko ume guztiak erai-kin handira joan dira eta orain eraikina udalaren esku geratu da. "Eraikinak ikuskapen bat pasatu zuen eta hobekuntza dezente behar ditu. Beraz, gauzak ondo eta ganoraz egin gura ditugu", adierazi du Eneritz Agirre Atxondoko alkateak.

Atxondoko Udalak eraikina konpondu eta txukundu gura du, eta bertan haurreskola ipini. "Momentu honetan haurreskolako umeak barrakoieta daude

eta eraikin horretara bideratzea da gure asmoa", azaldu du alkateak.

Orain arte Haur Hezkuntzako umeak zeuden eraikinean, orain eraikin handian daude

Bestalde, aurreko gobernu taldeak eraikin horretan ludoteka egitea aurreikusten bazuen ere, oraingo taldeak ez du hori begi onez ikusten. "Gure iritziz, ludoteka eskolatik kanpora egon behar da, ez haurreskolagaz batera", argitu du Agirrek.

Elorrioko Gaztetxearen 36. urteurrena mozzorrotuta ospatuko dute, zapatuan

Gaztetxeak 'zinema' gaia ipini dute mozzorrotzeko; mozzorrotuta joateko deia egin dute

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Aurten 36 urte beteko dira Elorrioko Gaztetxea okupatu zutenetik, eta asteburu honetan ospatuko dute urteurren hori, mozzorrotuta. Gazteek 'zinema' gaia aukeratu dute mozzorrotzeko, eta bertaratzeko gonbita egin diete herritarrei. 15:00etan emango diote hasiera urteurren jaiari, bazkariagaz, eta 18:00etan argazkia eta omenaldia egingo dituzte. Ondoren, musikarien txanda izango da: Edu Zardoyak eta Maridjok iluntzean joko dute. Gauean, 22:30ean, Estaka taldea arituko da, eta 00:00etan Doce C. Goizaldean, 01:30ean hasita, DJ Lamikiz eta Martinez arituko dira musika ipintzen.



Gaztetxearen 35. urteurrenean Mamuen Jaia ospatu zuten. @ELORRIKOGAZTETXEA

BIZI TZEKO HEZI

KURUTZIAGA
IKASTOLA 

MATRIKULAZIO EPEA
otsailaren 7tik 23ra
BISITA GAITZAZU GURA
DUZUNEAN!

ESKAINTZA:
0 urtetik 18 urtera bitarteko
hezkuntza eskaintza

HELBURUA:
Ikasle eleanitz, kritiko eta
euskaldunak

JANTOKIA:
Bertokoa, sasoikoa eta
produktu ekologikoak



www.kurutziagaikastola.eus



Martxan da Mañariko Errekondo jatetxearen kudeaketa eramateko lehiaketa, otsailaren 28ra arte

Baldintza-agirian aldaketa nagusi bat dago aurreko aldiekin konparatuta: esleipena hamar urtera artekoa izan daiteke. Lehenengo, urte birako izango da, eta, ondoren, urterik urtera, beste zortzi urtez luzatu daiteke alde biak ados badaude

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Udalak lehiaketa publikoa ipini du martxan Mañariko Errekondo jatetxearen arduradun berriak aukeratzeko. Joan zen asteko bari-kutik da martxan eta interesdunek otsailaren 28ra arteko epea izango dute euren proposamenak aurkez-teko. Baldintza-agiria udalaren begunean eskuratu daiteke.

Azken udalbatzarrean onartu zuten baldintza-agiria. Dokumentu honek aldaketa nagusi bat du helburu beragaz aurreko aldi batzuetan onartutakoekin alderatuta: kontsezioa hamar urtera artekoa izan daiteke. Lehenengo, urte birako izango da, eta gero, urterik urtera, beste zortzi urtez luzatu daiteke. Aurreko aldietako esleipena lau urterakoa izan da. Aldaketa horren helburua da alde biei —hala Mañariko Udalari nola esleipendunei— malgutasun handiagoa ematea urterik urtera jarraitu gura duten ala ez erabakitzeke. Horrez gainera, esleipenak hamarkada bat iraun dezakeenez, martxan ipi-

niriko proiektuari egonkortzeko aukera eman gura diote, bai lan-taldeari dagokionez eta baita eginiko inbertsio posibleak amortizatzeari dagokionez ere. "Azken batean, segurtasun bat ematen zaio sartzen

denari", arrazoitu du Ainara Otxotorena Mañariko alkateak.

Urte askoan Errekondo eraman zutenek negozioa utzi zutenetik, udalak hainbat bider atera du jatetxearen kudeaketa lehiaketara.

Lehenengo saiakerek ez zuten fruiturik eman, harik eta 2021eko urrian kudeaketa esleitzea lortu zuten arte. Urte bi eta erdian tarberna zabalik egon eta gero, arduradunek kontratua etetea erabaki dute.



Errekondo taberna itxita dago gaur egun.



Herritarrek Santa Ageda koplak abesten.

Mañariko Santa Ageda egunean 600 euro batu dituzte Saharako errefuxiatuentzat

MAÑARIA • J.D.

Zapatuan Santa Ageda koplak abestera irten zuten Mañarian eta tradizioa elkartasunagaz uztartu zuten, aurreko urteetan legez. Auzorik auzo eta baserri-rik baserri koplak abestuz, 600 bat euro batu zituzten eta diru hori Saharako errefuxiatuen kanpamentura helaraziko dute, Hamadako Izarrak elkartearen bitartez, Aste Santu inguruan. 2015etik proiektuan parte hartu duten umeen familiei janaria erosteko da dirua. Antolatzaileek "bihotzez eskerrak" eman dizkiete herritarrei, kantuan ibilitakoei eta hamarretakoa nahiz bazkaria prestatu zuten boluntarioei.



lazko Skimetraje jaialdiko irabazleak.

Eskiari buruzko film labur sarituak ikusgai Mallabian

lazko Skimetraje jaialdian nabarmenduriko hainbat dokumental Kontzejuzarrean emango dute egunean

MALLABIA • J.D.

Iazko Skimetraje jaialdian saria lortu zuten film laburretari-ko batzuk Mallabiko Kontzejuzarrean proiektatuko dituzte otsailaren 15ean, 19:00etan. Guztira, bederatzik ikus-entzunezko emango dituzte. Amateur mailako film laburrik onenaren saria irabazi

zuen Aomori da eurretari-ko bat. Eskia eta snowboarda gustuko duten bost lagunek Japoniako eremu hartan bizitako abenturak kontatzen ditu. Skimetrajen sariren bat irabazi duten *Falling in the No-fall zone*, *Donna Grasa* eta *Bleu Nuit* dokumentalak ere egongo dira ikusgai Mallabian.

Otxandion sagardotegian baleude lez bazkalduko dute inauterietan

Trikixotx sagardotegi mugikorrak jarriko du jan-edana; 200 lagun baino gehiagok eman dute izena bazkaritarako

OTXANDIO • J.D.

Zapatuan inauteriak ospatuko dituzte Otxandion. Eguerdiko herri bazkaria da ekimenetari-ko bat. Urtero legez, jendetsua izatea aurreikusi dute; 200 lagunek baino gehiagok eman dute izena eta eurretari-ko 100 inguru umeak dira. Bazkari mota ere

berezia izango da. Sagardotegi batean baleude legez bazkalduko dute, Larrabetzuko Triki-txotx sagardotegi mugikorrari eskerrak. Bazkaltzen duten bitartean, sagardo kupel batean txotx egiteko aukera izango dute denek; umeek ere bai, sagar zukuagaz.



Sagardo kupelagaz txotx egiteko aukera egongo da. TRIKIXOTX

Txitxiburduntzi egun jendetsua Izurtzan, azken urteetako joerari utsiz

IZURTZA • J.D.

Urteroko ohiturari utsiz, joan zen asteburuan Txitxiburduntzi eguna ospatu zuten Izurtzan. Udalak sua eta edaria ipini zituen, eta herritarrek janaria. Udal arduradunek nabarmendu dute jende asko batu zela, eta azken urteetan gorantz egin duen joera dela. Plaza bete zutenetari-ko asko izurtzarrak izan ziren, baina Durangotik ere familia dezentek joan zen azken urteetan lez, Izurtzaraino paseo bat eginda janaria prestatu aurretik.



Garaiko San Migel elizako habeak konpontzeko lanak, amaitzear

Bizkaiko Elizbarrutiak aginduta, beharginak habeak aldatzen ibili ziren joan zen astean, sei bat egunez. Orain, lanak amaitzeko, habeak margotzea baino ez da falta

GARAI • EKAITZ HERRERA

Azaro bueltan identifikaturiko arazoak konponduta, San Migel elizako elizpeak ohiko itxura berreskuratuko du laster. Urteetan kanpandorretik behera etorritako euri urek habe bi usteldu eta teilatu zati bat hondatu zituzten orain hile batzuk. Hori dela eta, Bizkaiko eliz-

barrutiak hainbat konponketa lan egin zuen joan zen astean. Beharginak sei-zazpi egunez ibili ziren dena onbideratzeko lanetan. "Habe bi konpondu, eta teila berriak ipini zituzten kalteturiko eremuan. Material berriak beste 40 bat urteko iraupena izan beharko luke", azaldu du Lazaro Milikua garaitarrak.

Lanak amaitzear daudela ere esan du Milikua: "Margotzea baino ez da falta, zutabeek zein habeek kolore bera izan dezaten". Bestalde, Garaiko Udalak elizaren ondoan dagoen artea inausi du. Elizpeari dagozkion konpontze-lanak Bizkaiko elizbarrutiak hartuko ditu bere gain.



Teilatuaren alde bat konpondu dute. Orain, margotzea baino ez da falta.

Musika eta euskara ikasteko zein kirola egiteko laguntzak eskatu daitezke Iurretan

Eskariak otsailaren 23ra arte egin daitezke eta udalak 14.000 euroko diru poltsa du horiei erantzuteko

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Udal kirol instalazioetan norberak kirola egiteko diru laguntza eskatzeko aukera dute iurretarek, otsailaren 22ra bitartean. Baita musika eta euskara ikastaroak egiteko ere. Guztira, udalak 14.000 euroko diru poltsa gorde du horretarako. Eskariak HAZen egin daitezke, baldin eta familia unitate osoa herrian erroldatuta badago iazko urtarilaren 1etik aurrera.

Kirola egiteko beste udalerrri batzuetako udal instalazioetara joan behar duten iurretarek eskatu dezakete kirol jardueragaz loturiko laguntza. Kirol azpiegitura dagoen herri horretan erroldaturikoek baino gehiago ordaindu behar dutenez, alde hori izango da laguntzaren zenbatekoa. Udalak 6.000 euro ipini ditu eskariei erantzuteko. Beste horrenbeste gorde dute musika ikasteagaitik jaso daitezkeen diru laguntzetarako. Kasu honetan ere, musika kontserbatorioa

dagoen herrian erroldaturikoek baino gehiago ordaindu behar dutenez, alde hori izango da onuradunek jasoko duten laguntzaren zenbatekoa. Otsailaren 22a eta 23 dira, hurrenez hurren, eskaria egiteko azken egunak.

Iurretarek Herritarren Arretarako Zerbitzuan egin dezakete eskaria

Bestalde, 2023an euskara ikastaroa egin zuten iurretarek matrikularen kostuaren erdia berreskuratzeke aukera izango dute. Horretarako, ikastetxearen ziurtagiria aurkeztu behar da, eta gutxienez ikastaro orduen %80 hartu dela ziurtatu. Udalak 2.000 euro gorde ditu diru laguntza hauetarako. Eskariak hilaren 22ra arte egin daitezke.



ANDRAMARI
ZORNOTZAKO IKASTOLA

TXIKIAK HANDI EGITEKO HEZKUNTZA OSOA

Otik 18 urtera arte



2024-2025 MATRIKULAZIOA: OTSAILAREN 7tik 23ra arte

EZAGUTU IKASTOLA!

➤ Banakako bisita pertsonalizatuak



946732950 | zornotza@ikastola.eus
www.andramarizornotzakoikastola.eus





Anbotokideen txokoa

OTSAILEKO ZOZKETAK



Kantuak berbekaz bete musika ekitaldirako sarrera bikoitza. Otsailaren 17an, Berrizko Kultur Etxean.



Muna umeentzako antzerkirako sarrera bikoitza. Otsailaren 18an, Arriolan.



Loti ederrak umeentzako antzerkirako sarrera bikoitza. Otsailaren 18an, San Agustinen.



Shine (Lasala) dantza ikuskizunerako sarrera bikoitza. Otsailaren 23an, Arriolan.



Kutxartean antzerkirako sarrera bikoitza. Otsailaren 23an, Berrizko Kultur Etxean.



Xiberu tabernan bi lagunentzako gosaria. Zornotza.

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

IRABAZLEAK

- 'Almazenean!': Jose Inazio Arrizabalaga Andrinua
- 'Euskaldungak': Ziortza Sarrionandia Olabarri

Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaitetz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Zaldibarko merkatarien, ostalarien eta zerbitzuen elkarte berriagaz bat egiteko deia egin dute

Elkartea sortuta dago eta kide gehiago ekimenera batzeko bilera egingo dute otsailaren 12an

ZALDIBAR • JONE GUENETXEA

Indar txikiak batzea, horixe da Zaldibarko merkatariak egin dutena ZAMOZE elkarte sortuta. Merkatariak, ostalariek eta zerbitzuetako enpresek bat egin, aurrean dituzten erronkei heltzea da helburua. Elkarteak ekainaren 6an sortu zuten, Denak Bai elkartearen laguntzagaz, eta orain beste pauso bat eman gura dute. Bazkide gehiago batu

guran, batzarrera deitu dute otsailaren 12rako, Zaldibarko liburutegi zaharrean. Bileran horretan bazkide egiteko alta-fitxa betetzeko aukera emango dutela aurreratu dute. Gainera, bertarurikoen artean hurrengo urratsak erabaki gura dituzte: elkartearen logoa eta izena, 2024rako antolatu daitezkeen ekintzak... Iradokizunak jasotzeko prest daudela gogoratu dute.



Elkartera bazkide gehiago batzea gura dute.

Lau urte bete dira Zaldibarko zabortegia amildu zela

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

Otsailaren 6an lau urte bete ziren Zaldibarko hondakindegia amildu eta Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran beharginak desagertu zirenetik. Data hori gogora ekarriz, Zaldibar Argituk deituta ekitaldia egin zuten joan zen domekan Eitzaga auzoan. Txalapartariak egon ziren, lore eskaintza egin zuten eta koplak abestu zituzten. Zaldibar Argitu Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartagaz eta Ekologistak Martxan elkarteagaz batera ingurumenaren kontrako delituen auzian herri akusazio modura aurkeztu zela gogoratu zuten. "Zerbait argitzen lagunduko zuelakoan hasi genuen epaitegietako bidea. Langileen osasunaren aurkako delituak aztertu zituen auzibidetik kanpo utzi gintuzten akusatuekin negoziazioa errazteko, gerora ikusi zen moduan. Verter Recyclingeko ardura-dunek zuhurtziagabekeriak bina hilketa onartu eta espetxea saihestea lortu zuten", azaldu dute ohar baten bitartez. Bestalde, auziak instrukzio fasean lau urte daramatzala salatu dute.



Berrizko Iremiñek hainbat ekitaldi antolatu du urteurrena ospatzeko

Berrizko Iremiñe taldeak 50+5 urte egingo ditu 2024an, eta hainbat ekitaldi antolatu dute urtemuga berezia ospatzeko; lehenengoa asteburu honetan bertan izango da

BERRIZ • A. M.

Berrizko Iremiñe dantza taldeak urteurren ospakizuna du aurten. Hain zuzen ere, 50+5 urte egingo ditu 2024an, eta hainbat ekintza antolatu dute hori ospatzeko; lehenengoa asteburu honetan izango da. Zapatuan, Lantzeko inauteriak ospatuko dituzte. Hizordua Elizondo plazan ipini dute, 17:00etan; handik kalejira egingo dute Olatueta plazaraino, eta 18:30 inguruan Miel Otxin erreko dute bertan. Iremiñek 1969ko sanjoanetan egin zuen bere lehenengo dantza saioa, San Juan ermitaren ondoan. Orduetik ehunka dantzari igaro da taldetik. Taldearen 25. eta 45. urteurrenaren ere jaia egin zuten.



2019an ere, Lantzeko inauteriak ospatuko zituzten.

Durungaldeko baserriarrek bat egin dute EHNE Bizkaiak eta ENBA Bizkaiak Bilbon deituriko mobilizazioekin

Iragarri dutenez, traktoreekin elkarretaratzea egingo dute Bilboko Areatzan, 10:00etan

DURANGALDEA • JONE GUENETXEA
EHNE Bizkaia eta ENBA Bizkaia nekazaritza sindikatuek mobilizazioa deitu dute barikurako Bilbon. Hiru eskaera zehatz egiten dituzte. Batetik, merkataritza libreko itunei amaiera ematea aldarrikatzen dute. MERCOSUR eta halako akordioen negoziazioak geldiaraztea eta Zeelanda Berriagaz akordioa ez berrestea eskatzen dute, "ardi okela (bildotsak) eta esnea Europako merkatuetan sartzeak dakarren mehatxuagaitik". Aldi berean, merkataritza askeko negoziazio prozesu guztiak geldiarazi behar

direla diote, eta, horretarako, beharrezkotzat jotzen dute "etetz luzamendu bat" ezartzea.

Bestetik, baserriarrentzako prezioek ekoizpen kostuak bermatu behar dituztela diote sindikatuek. "Merkatuaren erregulazioan oinarrituriko elikadura politika eskatzen dugu, prezio duinak bermatzeko mekanismo modura. Era berean, merkataritza jardunbide desleialei buruzko zuzentaraua modu eraginkorrean inplementatzea exijitzen dugu, ekoizpen kostuen azpitik saltzeko debekuagaz batera", gaineratu dute.

Hirugarren aldarrikapen modura, Europako Nekazaritza Politika (NPB) sinplifikatzea "ezinbestekoa" dela deritzote: "Gehiegizko burokraziak kostu onartezinak eragiten dizkie baserriarrei, eta ez dute uzten helburuak betetzen".

Gauzak horrela, gaurko mobilizazioa traktoreekin egingo dute (50 traktoretik gora). Traktore horiek Bizkaiko hainbat eskualdetatik irtengo dira eta Bilboko Areatzan elkartuko dira, 10:00etan. Gune horretan bertan, merkatu garden bat egingo dutela

iragarri dute, eta hutsean ontzituriko bildots laurdenak eskainiko dituzte, 20 euroko prezioan. Ekintza horren helburua azaldu dute sindikatuek: "Zeelanda Berriko arkumea sartzeak dakarren

mehatxua salatzen eta gure elikaduraren tokiko ekoizpeneren garrantzia nabarmentzeko". Durungaldeko baserriarrek Eroskiko aparkalekuan batuko dira, denak batera Bilbora joateko.



Baserriarren beste mobilizazio bateko argazkia. EHNE

Adinekoen bidaia kulturala Florentziara eta Cinque Terrara

Maiatzetik ekainera bitartean Italia ezagutzeko aukera eskainiko duen bidaia antolatu du Mankomunitateak

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA
Mankomunitateko adinekoen zerbitzuak bidaia kultural bat antolatu du instituzioaren zati diren eskualdeko udalerrietako edadetuentzat. Durangarrek orain arte ezin izan dute bidaia horretan parte hartu. Baina hemendik aurrera bai, Durangoko Udalak eta Mankomunitateak lankidetzan egin dute eta.

Maiatzetik ekainera bitartean lau bidaia antolatuko ditu, Italiako Florentzia eskualdea eta kostaldeko Cinque Terre herria ezagutzeko. Asko jota 200 herritarrek parte hartu ahal izango dute bertan, eta

eskainitakoak baino eskari gehiago egiten badira, orduan lekuak zozkatu beharko dituzte. Izena emateko aukera zabalik dago, gaurtik otsailaren 15era arte. Durangarrek adinekoen zerbitzura joan beharko dute izena ematera. Gainerako udalerrietako kideek, ostera, Elkartegira, Mankomunitatearen egoitzara. Idoia Otaduy Mankomunitateko presidentek azaldu du egitasmo honek "zaharitze aktiboa" sustatzea duela helburu. "Eskualdeko udalerrietako adinekoen arteko hartu-emanak eta bizikidetzaren handitzea gura dugu", azaldu du Otaduyk.



Mankomunitateko eta Durangoko Udaleko arduradunak, ekimenaren aurkezpenan.



"Jatorri, rol eta interes denetako umeak elkarrekin egoten dira espazio berrian"

Dena ez da futbola, ezta kirola ere. Izateko modu asko daude, zabala da interesen abanikoa eta kolore anitzekoa jakin-mina. Horiek guztiak mugarik gabe adierazteko eta garatzeko aukera eskaintzen die umei San Antonio ikastetxeko espazio berriak. Lehen Hezkuntzako koordinatzailea den Ritxar Garcia Jauregik azaldu ditu nondik norakoak.

Nondik dator asmoa?

Adin, genero eta interes desberdinetako umeek jolasgunea zelan erabiltzen zuten aztertu genuen. Erabileraren mapa bat egin genuen. Ikusi genuen batez ere futbolariek zuela zentralitatea, hark markatzen zuela erritmoa. Futbola edo, oro har, kirola ez ziren gainerako jarduerak zokoratuta eta isolatuta zeuden. Ondorio horiekin hausnarketa bat egin genuen. Erronka bat geneukan aurretik. Ikastetxean erabilera urriko berdegune handi bat geneukan eta bertan erabilera anitzeko espazio bat sortzeko aukera ikusi genuen.

Zer eskaintzen du espazio berriak?

Umeek euren interesak adierazteko eta garatzeko espazio zabal bat dute. Umeek bertan hartzen dituzten rolak ez dira genero estereotipoek markatutakoak. Jatorri, rol, gaitasun eta interes denetako umeak elkarrekin egoten dira eta erabilera partekatua egiten dute.

Zelan dago banatuta?

Espazio osoa naturagaz kontaktuan dago; berdegune handi bat, Durango erdian. Hainbat gune ditu. Batean, ortu bat dago eta haren bueltan eszenatoki bat harmailekin, aurkezpenak egiteko. Gorago dagoen domo edo kupula handiak ikaskuntza kalera atera eta klaseak gune natural batean emateko aukera eskaintzen digu. Ondoren, trebakuntza sozialerako gunea dator, mahaiekin eta eserlekuetara atondua. Lasai berba egin eta sozializatzeko espazio bat da. Azkenik, jolasteko gune bat dago, hainbat txirristarekin, areatza batekin... tirolina bat ere badago. Hau geuk, helduok, diseinatutako espazioa da. Hala ere, ziur nago ikasleek beste hamaika erabilera asmatuko dituztela.





Iazko parte-hartzaileetako batzuk.

Martxan da ANBOTOk antolatzen duen Inauterietako Argazki Lehiaketa

Argazkiak otsailaren 15a baino lehenago bidali beharko dira. Irabazleak Errigorako otzara eder bat eramango du etxera

DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Aurten ere ANBOTOk Inauterietako Argazki Lehiaketa antolatu du eta parte hartzeko gonbita egin die bere irakurleei.

Lehiaketa dagoeneko martxan da eta bertan parte hartu gura dutenek otsailaren 15era bitartean izango dute aukera argazkiak ANBOTOk webgunean ipintzeko. Egun horretako 13:00etan amai-

tuko da horretarako epea. Beraz, mozorro irudimentsu horiei argazkiak ateratzeko momentua da.

Bestalde, otsailaren 15etik 21era argazkirik gustukoena aukeratzeko aukera egongo da www.anboto.org-en. Botorik gehien jasotzen duen argazkiak Errigorako otzara eder bat irabaziko du. Botoa emateko epea otsailaren 21ean amaituko da, 10:00etan.

Politikan

Jesica Ruiz Pérez
PSE-EE



2024ko aurrekontuak

Aurrekontuak edozein erakunderen dokumentu garrantzitsuenak dira, horietan jasota geratzen baitira jarraibide politikoak. Aurten, Durangoko gobernu taldeak tasak eta zergak izoztea erabaki zuen, nahiz eta Udalkutxaren ekarpenarekin batera diru-sarreraren iturri nagusia izan. Egoera horren aurrean, bi aukera zeuden, inbertsioaren alde egitea edo pertsonen alde egitea, eta Durangoko gobernu taldeak oso argi izan zuen, lehenengo pertsonak. Datu asko eman daitezke, baina 2024ko aurrekontuak onartzen direnean publiko egingo dira, eta hor ikusiko da zelan jaitsi den inbertsioetako gastua iazkoarekin alderatuta (1,3 milioi) eta nola handitu diren partida sozialak:

- Berdintasuna: +%9,65
- Immigrazioa: +%6,03
- Adinekoak: +%5,04
- Gizarteratzea: +%12,24
- Parkeak eta lorategiak: +%14,90
- Argiak: +%27,91

Otamotzenako auzogunea: 3.000 €-tik 24.000 €-ra igo da, eta, horrez gain, % 50 handitu dugu auzoko elkartearikiko hitzarmena.

Argi daukagu zeintzuk diren gure lehentasunak: genero indarkeriaren unitatea martxan jartzea, adinekoentzako arreta hobetzea zentro berri bat izan arte, argiztapena hobetzea eta udal enplegu-plan bat abian jartzea, besteak beste.

Aurrekontuen zati handiena Aramotz eta Antso Estegizen inbertituko da, eta geratzen zaigun apurrarekin interes orokorraren alde egin behar; adibidez, Tabirako igerilekuetako aldagelak hobetu, eta energia-ekin lotutako inbertsioak, hala nola plaka fotovoltaikoak. Funtsen: pertsonak erdigunean.

Durangaldea asteen

459 elorriarren ekarpenak jaso dituzte HAPOn lehen parte hartze fasean

ELORRIO | Elorrioko Udala Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berritzen dabil. Dagoeneko amaitu dute lehenengo fasea, eta, udaletik jakinarazi dutenez, 459 elorriarren ekarpenak jaso dituzte. Behin lehenengo fasea amaituta, Hiri Antolamenduko Plan Orokorren berrikusketa bigarren fasean sartuko da; hau da, zirriborro aurreratuaren idazketan.

Bueltan da erretzeari uzteko doako ikastaroa, Mankomunitateak antolaturikoa

DURANGALDEA | Ikastaroa martxoaren 21ean hasiko da eta bederatzi saio izango ditu. Interesdunek martxoaren 8ra arteko epea izango dute inskripzioa egiteko, 946 200 520 telefonora deituta zein adikzioak@dma.eus helbidera idatzita. 15-18 laguneko taldea osatuko dute. Bilkurak hiru hilean egingo dituzte, asteen behin, 60-90 minutuko saioetan, adikzioetako espezialista batek gidatuta.

Auzo bitan hobekuntzak eginda, martxan da Zornotzako auzoen Hobekuntza Plana

ZORNOTZA | Zornotzako Udalak proiektu bi ditu martxan gaur egun: Jauregizahar eta Erkoles auzoetakoak. Jauregizahar saneatu, eta bertako bidegorria asfaltatuko dute; Erkolesen asfaltoa eta argiztapena berriztuko dituzte, eta edukiontzientzako eremu berri bat ipiniko dute.



Durango egingo den 40 Minutu Rock jaialdirako sarrerak zozkatuko ditu ANBOTOk

DURANGO | Durango otsailaren 24an egingo den 40 Minutu Rock jaialdirako hiru sarrera bikoitz zozkatuko ditu ANBOTOk Instagrameko jarraitzaileen artean. Zozketan parte hartu gura dutenek haxe egin beharko dute: ANBOTOk Instagram kontuan sartu eta orriari 'gustuko dut' eman, post-a 'story'-etan partekatu, eta iruzkitan lagun bat etiketatu. Zozketa otsailaren 20an egingo da.

Bestalde, antolatzaileek gogorarazi dute sarrerak erosteko aukera dagoela oraindino.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

Durangaldean gremioekin,
zerikusia duen negoziarik baduzu,

IPINI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON







Informazio gehiago **94 621 79 02** telefono zenbakian







ITZALAK

Beheko itzal hauetatik zein dagokio goiko irudiari?



LOTU ITZAZU

Zein maskara da zeinena? Lotu maskara bakoitza dagokion superheroiagaz.



INAUTERIE TAKO ARGAZKI LEHIAKETA 2024

*Igo zure argazkia
otsailaren 9tik 15era
bitartean*

Webgunean botorik gehien
jasotzen duen argazkiaren
egileak
Errigora-ren otzara
bat irabaziko du

 **anboto**

*Oinarriak anboto.org webgunean



Zinema

:: Berriz
KULTUR ETXEA
• Valle de sombras
domeka 11: 19:00

:: Durango
ZUGAZA ZINEMA

• Ferrari
barikua 9: 18:30/21:00
zapatua 10: 19:00/21:30
domeka 11: 19:30
astelehena 12: 17:45 / 20:15
martitzena 13: 17:45 / 20:15
eguztzena 14: 19:30

• El color púrpura
barikua 9: 18:30/21:00
zapatua 10: 18:00 / 21:00
domeka 11: 16:45 / 19:30
astelehena 12: 17:45 / 20:15
martitzena 13: 17:45 / 20:15
eguztzena 14: 19:00

• La piscina
barikua 9: 18:30 / 21:00
zapatua 10: 17:00 / 19:00 / 21:30
domeka 11: 17:00 / 19:30
astelehena 12: 17:45 / 20:15
martitzena 13: 17:45 / 20:15
eguztzena 14: 19:00

• Katak. La pequeña ballena
zapatua 10: 17:00
domeka 11: 17:00

:: Elorrio
ARRIOLA ANTZOKIA

• Femme
zapatua 10: 20:00
domeka 11: 20:00
astelehena 12: 20:00

• Migrazioa. Bidaia ahazteztina
domeka 11: 17:00

:: Zornotza
ZORNOTZA ARETOA

• 20.000 especies de abejas
domeka 11: 20:00
astelehena 12: 20:15

• Tony, Shelly y la linterna mágica
domeka 11: 17:00

• El sueño de la sultana
martitzena 13: 20:15



Surrandien Dantza

INAUTERIAK DURANGALDEA:: Otsailak 10

Kaleak mozorroz eta kolorez jantziko dira asteburuan

Durangaldeko kale eta bazterrak mozorroz eta kolorez jantziko dira datozen egunetan. Heldu dira inauteriak, eta eurekin batera irudimenez beteriko karroza, desfile eta konpartsak. Gainera, aurten 25 urte bete dira Kriskitin dantza taldeak Surrandien Konpartsa sortu zuela. Bada, urteurrena ospatzeko, Surrandien Dantza plazaratuko dute.

Surrandiek urteroko hitzorduari hutsik egin barik irtengo dute zapatuan, Hartza buru dela.

Eurekin batera izango dituzte Tabira Musika Banda eta Jaizale elkarteko txistulariak, jai giroa berotzeko. Durangoko Merkatu plazan ipini dute hitzordua, 18:00etan.

Disko-festak eta herri bazkariak antolatu dituzte Abadiñon, Berrizen, Elorrian, Iurretan, Mallabian eta Otxandion zapatu-rako. Eta mozorro desfileak ere egingo dituzte hainbat herritan. Zornotzan, Perubeleren eskutik hasiko dituzte inauteriak.

Otsailaren 9an

ABADIÑO inauteriak
Dantzatzeko prest disko-festa, 15:30etik 17:30era, probalekuan.

Kareta tailerra, 16:30etik 18:30era, probalekuan.
Txokolatada, 16:30ean, Traña plazan.

Xaibor disko-festa, 17:00etatik 18:30era, Traña plazan.

ABADIÑO sanblasak
Abadiñoko II. Esku Pilota Txapelketa Herrikoiko finala, 19:00etan, frontoian.

ATXONDO inauteriak
Haurrentzako puzgarri eta jolasak, arratsaldean, plazan.

BERRIZ inauteriak
Haurreskolakoen kalejira, 10:30ean.

Mozorro kalejira, 11:00etan, herriko kaleetan (euria bada ez da egingo).

Eskolako ikasleen ikuskizuna, Berrizburu kiroldegian.

Trena Olakuetatik Elizondora eta alderantziz (12:00-13:30 / 16:30-19:30).

Euskal disko-festa, 18:30ean, frontoian.

ELORRIO antzerkia
'La sed del minotauro' (Khea Ziater), 20:00etan, Arriola antzokian.

IURRETA antzerkia
'Ametsen mundua' (Patata Tropikala Teatro), 17:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

MAÑARIA aurkezpena
KORRIKA 23ren aurkezpena eta erakusketa, 19:00etan, plazan.

ZORNOTZA inauteriak
Koldo DJa eta mozorro jaia, 11:30ean, Nafarroa Zentroan.
Inauterietako bazkari berezia, 13:30ean, bertoko jatetxean.

Koldo DJa eta mozorro lehiaketa, 15:30ean, Nafarroa Zentroan.

Eskulan tailerra, Ludotekan (17:00/18:00/19:00).

Perubeleren kalejira Udazken taldeko gaiteroekin, 19:00etan, Zelaieta Zentrotik Zubiondora.

Sagardoa eta txorizoa, 19:30ean, Zubiondoko karpan.
Zutik erromeria taldea, 20:00etan, Zubiondon.

ZORNOTZA pailazoak
'Ez gara jaitsiko' (Porrotx eta Marimotots), 17:15ean eta 19:15ean, Zornotza Aretoan.

Otsailaren 10ean

ABADIÑO inauteriak
Trikileku, 12:00etan, Zelaian.

Maleta Siku, 14:30ean, probalekuan.

Granujas a todo Ritmo taldea, 17:00etan, Zelaian.
Disko 'F' Sound, 19:30ean, Traña Matienan.

80ko hamarkadako inauteri jaia, 20:00etan, Isiotun.

BERRIZ inauteriak
Kuadrillen topaketa Disco Bayok girotuta, 12:00etan, Olakueta plazan (euria bada probalekuan).

Herri bazkaria, 14:00etan, frontoian.

Robert DJgaz erromeria, 16:30ean, Probalekuan.

Mozorro lehiaketarako izen ematea, 18:15etik 18:45era, probalekuan.

Mozorro lehiaketa, 19:00etan, probalekuan.
Erromeria Roca DJgaz.

BERRIZ urteurrena
Berrizko Iremiñe dantza taldeak 50+5 urte: Lantzeko inauteria.
Elkartzeko ordua, 17:00etan, plazan.

Kalejira herriko kaleetan.
Miel Otxin erre, 18:30ean, Olakueta plazan.

DURANGO inauteriak
Jolas libreko gunea, Landako Gunean (11:00-14:00/16:00-20:00).

Mozorroak prestatzeko tailerrak, 12:00etan, Madalena auzoan. Auzo Alai elkarteak antolatuta (euria bada Francisco Ibarra kalean).

Haur parkea, 16:00etatik 20:00etara, Landako Gunean.

Kalejira: Surrandien eta hartzaren konpartsa, Jaizale elkarteko txistulariekin eta Tabira Musika Bandagaz, 18:00etan, Merkatu Plazan hasita.

ELORRIO inauteriak
Kalejira Fanfarriko txarangagaz, 12:30ean.
Disko-festa, 18:00etatik 22:00etara, plazan.
Haurren mozorro lehiaketaren bakarkako sari banaketa, 18:00etan, plazan (tabernarien eskutik).
Helduen mozorro lehiaketaren bakarkako eta taldekako sari banaketa, gauerdian, Portalekuan (tabernarien eskutik). (Euria bada ekitaldiak Hilario Azkarate frontoian izango dira).

IURRETA inauteriak
Kalejira Montoitik trikitilariak lagunduta, 12:30ean.

Bazkaria, 15:00etan, Askondon.

Musika, bazkalostea girotzeko.

MALLABIA inauteriak
Mozorro bazkari autogestionatua, 14:30ean,

herriko frontoian.

Ándale Catrinagaz kale animazioa, 17:00etan.

MAÑARIA inauteriak
Kale ikuskizuna: Sasi-berezi eta Mozolo, 17:00etan, herrigunean.

OTXANDIO inauteriak
Giltza trukea eta txupinazoa, 12:30ean, 6. mailakoen eskutik.

Udal Bandagaz kale animazioa.

II. Mozorro Desfilea, 13:00etan.

Herri bazkaria, 15:00etan.

Disko-festa: Xaibor, 18:00etan.

ZALDIBAR inauteriak
Mugi Zaitetz disko-festa, 18:00etan, udaletxeko plazan.

ZORNOTZA inauteriak
Inauteri dantzak Udabarri dantza taldeagaz,

13:00etan, herriko plazan.

Zornotza Musika Banda,

13:30ean, herriko kaleetan zehar (Kalbario, Euskal Herria plaza, Harrison plaza).

'Gora bihotzak' ikuskizuna (Eidabe), 18:30ean, Zubiondo parkeko karpan.

Kalejira: Triki Piu Pand taldea, 19:00etan (San Juan kalea, Gernika plaza, Andra Mari plaza).

Karaoke ibiltaria, 19:30ean, Zezilia Gallarzagaitia eta Sabino Arana kaleetan.

Ainhoa DJ, 20:00etan, Zubiondo parkeko karpan.

Karaoke ibiltaria eta olinpiadak, 21:30ean, Luis Urrengoetxea kalean.

ZORNOTZA ikuskizuna
'GO!azen 10.0' musika eta dantza ikuskizuna, 17:00etan eta 19:00etan, Zornotza Aretoan.

Otsailaren 11n

ABADIÑO azoka
Hileko 2. domekako azoka, 10:30etik 14:30era, Txanporta plazan. **Israk eta Juanmik girotuta** (euria bada, probalekuan).

ABADIÑO musika
Nevadah, 13:30ean, Amaraun Arte Fabrikan.

DURANGO inauteriak
Jolas libreko gunea, Landako Gunean (11:00-14:00/16:00-20:00).

Parkour tailerrak, 12:30ean, Tabira auzoan. Tabira auzo elkarteak antolatuta (euria bada, ez da egingo)

Haur parkea, 16:00etatik 20:00etara, Landako Gunean.

Rocka familian: 'I Love rock and Roll II', 18:00etan, Plateruena Kultur Aterpean.

ZORNOTZA basokoipetsu
Basokoipetsu Eguna: San Bartolome ermitara irteera, 10:00etan, Kalbariotik.

Otsailaren 12an

DURANGO inauteriak
Jolas libreko gunea, Landako Gunean (11:00-14:00/16:00-20:00).

Haur parkea, 16:00etatik 20:00etara, Landako Gunean.

Durango antzerkia
'Susto' (Maite Guevara konpainia), 19:00etan, San Agustin kulturunean.

Otsailaren 13an

ATXONDO inauteriak
Musika animazioa eta txokolate beroa, arratsaldean.

DURANGO inauteriak
Jolas libreko gunea, Landako Gunean (11:00-14:00/16:00-20:00).

Jolas Eguna: Magia hurbiletik (Kidam eta David Blanco magoak), 12:30ean, Otamotzenako auzogunean. Herria auzo elkarteak antolatuta.

Haur parkea, 16:00etatik 20:00etara, Landako Gunean.

Tailerrak Denboraren Bankuaren eskutik, 17:00etatik 19:00etara, Landako Gunean.

Disko dantza familiarra eta karaokea, 17:00etan, Plateruena Kultur Aterpean. Amaitzean, zozketa.

Gazte diskoteka: Jon Kass Dja, 20:00etan, Plateruena Kultur Aterpean.

ELORRIO inauteriak
Maria Bitarteko, Lourdes Ikastetxea eta Txintxirri ikastolako ikasleen ikuskizuna, 10:30ean, plazan.

Herri eskolako haurren ikuskizuna, 11:45ean.

Txiki-Larima disko-festa, 10:30etik 13:00era.

Txokolatea La Esperanza elkartearen eskutik, 18:15ean.

Luhartz taldea, 18:30ean. (Eurria bada, ekitaldiak Hilario Azkarate frontoian izango dira).

IURRETA inauteriak
Ainhoa DJ, 17:00etan, Askondon.

Eingo, 19:00etan.

MALLABIA inauteriak
Mallabiko Olinpiaden irekiera ekitaldia eta jaialdia, 10:15ean, eskolako frontoian.

Txokolatada, 16:30ean, herriko frontoian.

Oihan Vega DJagaz erromeria, 17:00etatik 20:30era, herriko frontoian.

Mozorro lehiaketa eta play-backa, 17:30ean.

ZALDIBAR inauteriak
Gora Bihotzak haur animazioa, 17:00etan, udaletxeko plazan.

Mozorro lehiaketako sari banaketa, 18:00etan.

ZORNOTZA inauteriak
Inauterietako photocall-a: Gure Volkswagen hippyan bidaiatzen, 11:00etan, Nafarroa Zentroan.

Survival Hippi Drag jaialdi handia, 11:30ean, Nafarroa Zentroan.

Photocall-a, 17:00etan, ludotekan.

Perubele eskulan tailerra, 17:00etan eta 18:00etan, ludotekan.

'Kattalinen bidaia' umeentzako ikuskizuna (Panpotx), 18:00etan, Zubiondo parkeko karpan.

Kalejira, 19:00etan, Zubiondotik Zelaieta parkeko kioskora.

Perubeleren agurra Udazken taldeko gaiteroekin eta Zinbulu dantza bertikala taldeagaz, Zelaietan.

Otsailaren 15ean

DURANGO antzerkia
'Almazenean' (Txalo Produzioak konpainia), 19:00etan, San Agustin kulturunean.

MALLABIA film laburrak 2023ko Skimetrajea film labor sarituen hautaketa, 19:00etan, Kontzejuzarren.

ZORNOTZA musika
Karla Silva, 20:00etan, Zelaietako kontzertu gelan.

Otsailaren 16an

ABADIÑO Ikuskizuna
L'Aparición (A Nariguda), 20:00etan, Amaraun Arte Fabrikan.

ELORRIO kontzertua
Ke Lepo + Haira, 22:00etan. Ondoren, **DJ Tibe B2B DJ Jkin Alonso**, Ateneoan.

IURRETA antzerkia
'La casa de Bernarda Alba' (Sekné Teatro), 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

ZALDIBAR ipuinak
Inauterietako ipuinak, 17:00etan eta 17:30ean, Liburutegi zaharrea.

ZORNOTZA antzerkia
'Euskaldungak' (Taulerak konpainia), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Otsailaren 22ra bitartean

ZORNOTZA erakusketa
'Ikusi eta ikasi' erakusketa, Zelaieta zentroko 1. pisuan.

Otsailean zehar

ELORRIO erakusketa
'Biribilak mendietan. Seres.Kortak. Saroiak' erakusketa, Iturri kultur etxean.

ZORNOTZA erakusketa
'Naizen emakumea', Zelaieta zentroan. Errumaniako zazpi arkitektoen lana eta bizitza jasotzen duen erakusketa.

BERRIZKO KULTUR ETXEA

Kantuak berbekaz bete
Kutxartean
Nevenka

Ots 17, 19:00
Ots 23, 17:00
Ots 24, 19:00

Programazio guztia

AGORA ezagutzaren plaza

INTELIGENCIA ARTIFICIAL, EL FUTURO HECHO PRESENTE

Otsailak 20 18:30
Hizkuntza: gaztelania

HIZLARIA: GORKA AZKUNE GALPARSORO

Informatikan doktoratua eta egun EHUko Informatika Fakultateko irakaslea. IXA ikerketa-taldeko eta Hizkuntzaren Teknologia Euskal Zentroko ikertzailea. Bera ikerketa ikaskuntza automatikoan, robotika mugikorrean, adimen artifizialean eta ikusmen artifizialean oinarritu da.

Izena ematea beharrezkoa da

Bitartekaria: **Iurreta** Euzko Lehen Unibertsitatea

Antolatzailea: **Iurreta** Euzko Lehen Unibertsitatea

“Lehenengoz taularatu baino bost minutu lehenago ikara itzela sartu zitzaigun; 'Zertan gabilta hemen?', pentsatu genuen”

Otsailaren 16an, Aroa Blancok eta Maite Lopezek 'Euskaldungak' estreinatuko dute Zornotzan; emanaldia 20:00etan izango da eta sarrera sei euro dira



Aroa Blanco eta Maite Lopez.

ANTZERKIA • ARITZ MALDONADO

Aroa Blancok eta Maite Lopezek hainbat bider lan egin dute elkarregaz taula gainean. Orain, bien artean egin dute obraren prozesu osoa, hasi eta amaitu. Euskaldun berri eta euskaldun zaharren artean ohikoak diren egoerak ikusiko dira antzezlanean, ikusleari ezagunak egingo zaizkion solasaldi, eztabaida eta txarto-ulertuak. Zornotzakoaz gainera, beste hiru emanaldi gehiago dituzte iragarrita: Galdakaon martxoaren 15ean, Durangoko San Agustín kulturgunean martxoaren 21ean, eta Gernikan maiatzaren 31n. "Ikara apur bat ere badugu, baina, batez ere, gogoia dugu taula gainera igotzeko; beldur apur bat ondo etortzen da erritmoa edukitzeko", esan dute.

Euskaldun zaharroi zergaitik kostatzen zaigu hainbeste euskaldun berriei zuzenketak egitea? Eta zergaitik dute euskaldun berriek heinbesteko bildurra akatsak egiteko?

Maite Lopez: Sarri eduki ditut horrelako solasaldiak, batez ere orain

urte batzuk, eta, orokortzea arriskutsua bada ere, esango nuke jende askori gertatzen zaiola; erresistentzia moduko bat dugu jendeari zuzenketak egiterako orduan. Gurago dugu gaztelaniaz aritu euskaraz egiteko ohiturarik ez duenagaz, ez dugulako jendea lotsarazi gura. Hori gaudituz egin behar dugula uste dut. Euskaldun berri askori horregaitik kostatzen zaiola esango nuke, ez diogulako zuzenketarik egiten.

Aroa Blanco: Alde batetik, beste hizkuntza bat ere erabili dezakegu, eta hori erosoagoa da, eta gaur egun ez gaude erosotasunetik irtertera ohituta. Baina beldur hori gaudituz ez badugu, ez dugu euskaraz egingo; nik akatsak egin ahala ikasi dut. Gertatu zait etxera joan eta bueltak ematea buruari: 'joe, hemen ergatiboa ez dut ondo erabili eta inork ere ez dit ezer esan'. Edo okerrago, besteen aurpegian ikusi akatsa egin duzula, baina ez dizutela ezer esaten. 'Ados, txarto egin dut, baina

zer egin dut txarto?'. Euskal kultura oso serioa dela ikusten dugu, oso intentsoak gara, baina ez litzateke hainbesterako izan behar. Eta horri buruz berbetan hasi ginen Euskaldungak sortzerakoan.

Horren ondoren erabaki zenuten elkarregaz lan egitea?

M. L.: Nahiko paraleloan joan zen. San Agustinen elkarregaz lan egin genuen, eta Kariikaren inguruan ere egon gara. Lagunak ere bagara; beraz, beti genbiltzan elkarregaz zer bait egiteko gogoz, eta oraintxe izan da. Udan hasi ginen benetan geratzen, berba egiten eta idazten. Baina nahiko naturala izan da dena.

A. B.: Euskaltegiko ibilbidea amaitzen nengoen, eta nire istorioak kontatzeko gogoia nuen. Baina, aldi berean, *Miss Spein* egitetik nentorren; proiektu horretan bakarrik igotzen nuen oholtzara, eta hori gogorra ere egiten da une batzuetan; beraz, gurago nuen norbaitegaz zer bait egin.

Zer esan gura du 'euskaldungak'-ek?

M. L.: Behin lanean hasita erabaki genuen *Euskaldungak* deitzea obra. Alkoholzale Anonimoak izenagaz antzekotasunak bilatzen eta euskal berbeekin jolasten hasi ginen. 'Zer dagokio euskarari?' bueltaka genuen buruan; Euskaltzaindiaren webgunean, 'alkoholika' alkoholari dagokiona dela dio, eta 'euskaldungo' hitza euskarari dagokiona, euskal zaletasuna. Berba tontoa dela pentsatu nuen, ez neukan entzunda eta. Eta 'euskaldungo' erabiltzea pentsatu genuen; ez du zentzurik, baina horregaz geratzea erabaki genuen, sonoritatea ere oso tontoa edo barregarria duelako.

Durangoko Azokan bertsio laburra aurkeztu zenuten. Gustura?

M. L.: Uda inguruan hasi ginen obra idazten, eta urri inguruan Patri Urrutiari deitu genion, kanpoko begirada bat edukitzeko; ordurako prest genuen antzezlaren bertsio luzea. Szenatokian

antzezlariak baino ez dira taularatzen, eta duda genuen, baina Arantza Arrazolak esan zigun bertsio laburragaz joateko. Orduan, laburtu eta *tonoa* harrapatu genuen Patrigaz.

A. B.: Gure kabuz entseatu genuen, eta Patri eta Arantzari aurkeztu genien. Zer zuzendu esan ziguten, eta *tonoa* zelan harrapatu; hau da, denak intentzio bat izan behar duela. Hasieran beste *tono* bat genuen, jolasetik, baina bortitzagoa zen, *rin tin tin* moduko bat zuen, eta gure arteko konplizitatea nabarmentzen genuenean hobeto funtzionatzen zuela esan ziguten. Eta horixe ikusi zen Szenatokiko

Konfiantza handia dugu Patri Urrutiarengan; zerbaitek ez duela balio esaten digunean hala dela ulertzen dugu, eta badakigu ikuskizunaren mesedetan dela


emanaldian. Aukera hori oso ona izan zen horretaz konturatzeko.

M. L.: Hori lortuta, bagenuen lanaren edo helburuaren zati handi bat. Taularatu baino bost minutu lehenago ikara itzela sartu zitzaigun; 'zertan gabilta hemen?', pentsatu genuen, baina betikoa da hori (barrez).

Ez da lehenengo aldia elkarregaz lan egiten duzuen.

M. L.: Elkarregaz zer bait egiteko gogoia genuen, zer bait "serioa". Aurkezpenak egin ditugu elkarregaz. Eta Patrigaz ere bai aurretik. Ezagutzen dugu, Topaklownen klaseak eman zituelako, eta Kariikako zuzendaria ere izan zen.

A. B.: Proiektu honetan bereziki erraza izan da Patrigaz lan egitea, hasieratik harrapatu zuelako zein den gure asmoa. Ondo ulertu du zer gura genuen eta zer behar genuen. Guk ere ondo ulertu diogu berari, eta ondo moldatu gara esan digunera. Konfiantza handia dugu berarengan, zerbaitek ez duela balio esaten digunean hala dela ulertzeko. Badakigu ikuskizunaren mesedetan esaten digula. Eta berdin Arantzagaz. Biei asko eskertzen diegu eman digutena. Garrantzitsua da kanpotik zer ikusten den jasotzea. Azken finean, eskaintzen duzuna ulertzen ez bada, ez du ezertarako ere balio.



Sara Zozaya. ARRIGURI

Berrizko Kultur Etxeak egitaraua aurkeztu du

Igor Elortzaren Anonyme Popular, 'Baginaren bakarrizketak' eta Sara Zozaya egongo dira, besteak beste, Berrizen

MUSIKA • A. M.

Igor Elortza bertsolari durangarrak gidatzen duen Anonyme Popular proiektuaren kontzertuagaz ekingo dio Berrizko Kultur Etxeak programazio berriari. Ohikoa den moduan, zuzeneko musika, antzerkia eta familia osoarentzako ikuskizunak egongo dira. Otsailean bertan, Anonyme Popularren kontzertuaz gainera, Paraisoren *Kutxartean* eta Histrion Teatroyen *Nevenka* antzeztan egongo dira ikusgai, otsailaren 23an eta 24an, hurrenez hurren.

Martxoan kontzertu bi egongo dira: Carla Collado (martxoak 2) eta Sara Zozaya. Collado katalana da eta *Coraje* lana aurkezten hasiko da martxotik aurrera. Zozaya *Nara* diskoaren aurkezpen biran murgildurik dago. Martxoan, David Segurak umeentzako *Las Maravillas del mundo* taularatuko du. Emanaldietarako sarrerak Kultur Etxean bertan erosi daitezke (astelehentan 16:30etik 20:30era edo martitzenetatik barikuetara 10:30etik 13:30era eta 16:30etik 20:30era), edo Internet bidez.

EGITARAUA

• Otsailak 17, Anonyme Popularren **Kantuak berbekaz bete.**

• Otsailak 23, Paraisoren **Kutxartean.**

• Otsailak 23, Histrion Teatroyen **Nevenka.**

• Martxoak 2, **Carla Collado.**

• Martxoak 9, Txaloren **Baginaren bakarrizketak.**

• Martxoak 16, La dramática erranteren **Yerma.**

• Martxoak 22, David Seguraren **Las maravillas del mundo.**

• Martxoak 23, **Sara Zozaya.**

• Apirilak 12, Lankuren **Teilatupean.**

• Maiatzak 25, Txintxaun antzerki kolektiboaren **75 puñaladas.**

Karla Silvak 'SHE' bakarkako lana aurkeztuko du Zornotzan

Emanaldia hiruko formatuan egingo dute, eguenean, hilak 15, 20:00etan, Zelaietako kontzertu gelan

MUSIKA • A. M.

Karla Silvak kontzertua emango du Zornotzan datorren eguenean, hilak 15; 20:00etan hasiko da. Musikari venezuelarrak *SHE* bere azken lana aurkeztuko du. Abestu ez ezik pianoa ere joko du bertan. Hirukote formatuan emango du egueneko kontzertua, eta Silvagaz batera Richie Ferrerrek (kontrabaxua) eta Miquel Asensiok (bateria) igoko dute taula gainera; diskoaren grabazioan Ariel Bringuezek, Bob Sands-ek eta Enric Castellok

parte hartu zuten, besteak beste. Musikariaren esanetan, hirukote formatuak, diskoko abestiak jotzeaz gainera, abestietan inprobisatzeko aukera ematen die. "Diskoak emakumeei egiten die erreferentzia", argitu du Silvak. Besteak beste, bossa nova eta soul doinuak gehitzen dizkiete oinarrian dituzten jazz doinuei, eta, artistak adierazi duen legez, inprobisazioak ere izango du bere tokia emanaldian, jazz kontzertuetan ohikoa den moduan.



Karla Silva.

Gai librean

Tunel bat

1848an eraiki zen Iberiar penintsulako lehen trenbide tunela Kataluniako Montgat udalerrian. Egonarri gutxi orduan ere eta behar baino lehen inauguratu zuten zuloa. Adi: zaldiek tiratutako bagoiekin. Ezin tren-makina ingelesak iritsi arteko bi hilabeteak itxaron zinta mozteko. Txutxua, presa.

Sorpresa. 2024an iragarri berri da Elorrio eta Arrasate artean eraikiko duten 830 metroko tunela. Bihurguneak kendu eta Kanpazar gaina gaintzeko proiektua. Hara mapetan erregela jarri eta errotuladore permanentez lerro zuzenak egitea maite duen jendea. AHTaren trenbide tunel pare bat handik, beste hau hain gertu. Herri proiektu baten amaiera dela diote albisteetan.



Libe Mimenza Castillo
Kazetaria

Ezin tren-makina ingelesak iritsi arteko bi hilabeteak itxaron zinta mozteko.
Txutxua, presa

Estilo horretakoa da orainaren kontrako lotsagabekeria. Mozrorrik gabeko altxamendua

Benetan da herri proiektu bat aireportura 40 minututan heltzeko, edo beste era batera esanda bost minutu aurretzeko, Udalatx azpitik azpiegi-

tura erraldoi bat eraikitzea bizi dugun krisi ekosozialaren erdian? Txu txuuuu.

Tontorrera igota, bete-betean sinesten dut ederra dela gure herria lanbroak dena ezkututzen duen egunetan. Azukrezko kotoi mantua desagertzean, ordea, egia geratzen da begi-bistan. Atx! Zer bihotzeko zarras-ta herri sarreraren eraiki dizkiguzuen biaduktuen artetik igarotzen garen aldiro. Min eta, berriz, zaurietan erre-sumin.

Zuloak tapatu nahian kotxea garbitzeko tuneleko fitxak oparitutako dizkigute akaso martxa honetan. Azal lodia eta esku zikinak garbitzeko premia. Estilo horretakoa da orainaren kontrako lotsagabekeria. Mozrorrik gabeko altxamendua.

Noiz arte megaproiektuen inaute-ria?



Oihane Irusta Gomez

Bidezabaleko atleta

DURANGO | 2001

“Krosa, orokorrean, gainbeheran dago, eta emakumeen krosa oraindino okerrago dagoela esango nuke”

Oihane Irustak zilarrezko eta brontzezko domina bana irabazi du, asteburu berean, Euskadiko kros eta atletismo txapelketetan

ATLETISMOA • JOSEBA DERTEANO

Aurten maila absolutuan estreinatuta eta domina bi eskuratu ditu: zilarra Euskadiko kros txapelketan, eta brontzea Euskadiko atletismo txapelketako 1.500 metroko proban. Une honetan Euskadiko kros ligako liderra da, eta pistako lasterketak ere begiz jota ditu. Aurten, 1.500 eta 3.000 metroko probetan dituen marka pertsonalak hobetzea gustatuko litzaioke.

Gustura zaude Euskadiko txapelketan eginiko lanagaz?

Bai, pozarren nago zilarrezko dominagaz.

Zelan joan zen lasterketa?

Gure lasterketa hasi aurretikoan euria hasi zuen eta ibilbidea lupertzua egin zen. Hotz irten genuen denok, erritmo erosoan. Hasieran krosleri dezente geunden multzo nagusian. Hirugarren bueltan edo, Gurutze Fradesek erritmoa aldatu zuen, apur batean berari jarraitzen ahalegindu nintzen, baina ezin izan nuen. Nik Izaro Aranburugaz nuen borroka nagusia, bigarren posturako.

Gozatik gazira. Espainiako kros txapelketan ez duzu zeure onena eman eta 64. amaitu zenuen.

Postu hobe lortzeko entrenatzen nebilen. Ez dakit ondo zer gertatu zitzaidan. Egun horretan

ez nintzen mentalki gogor egon. Egia esan, lehenengoz parte hartzen nuen Espainiako txapelketa batean maila absolutuan, baina, hala ere... Blokeatu egin nintzen. Ez nago pozik egin nuenagaz. Erakutsi nuena baino gehiago neukala uste dut.

Iaz Euskadiko Kros Liga irabazi zenuen 23 urtez azpiko mailan. Aurten lider zaude maila absolutuan. Liga azken arte lehiatzeko asmoa duzu?

Ez dakit. Iaz egunerokoan murgilduta eta oso motibatuta nengoen eta ez nintzen konturatzen baina, orain, perspektibagaz begiratuta, iruditzen zait asteburu gehiegitan lehiatu nintzela. Beraz, ez dakit zer punturaino merezi duen liga lehiatzea. Beharbada aproposagoa izango da lasterketa solteak egitea, entrenamendu modura, eta indarra Euskadiko txapelketarako gorde. Oraindino erabaki barik daukat.

Ez da sekretua krosa krisian dagoela. Afizioak, lasterketek, baliabideek... behera egin dute. Zuk zeure inguruan zelan bizi duzu egoera hori?

Ez dago krosleri asko. Ligan beti jende bera batu gara. Krosa, orokorrean, gainbeheran dago, eta emakumeen krosa oraindino okerrago dagoela esango nuke. Euskadiko txapelketan 160 bat

gizon aritu ziren, eta emakumeetan 60 ere ez. Penagarria da, baina horixe da errealitatea.

Normalean, umeen kategorietan ume asko ibiltzen da krosetan. Ni nahiko berandu hasi nintzen, DBHko hirugarren edo laugarren mailan nenbilenean, eta sasoi hartan gazte asko genbiltzan. Kontua da unibertsitatera joateko adinera

heltzean, jende askok utzi egiten duela. Pena da.

Zu ere bazabiltza unibertsitatean, gradu bi egiten gainera: negozioen kudeaketa, eta lan harremanak eta giza baliabideak. Pasatu zaizu burutik atletismoa uztea?

Ez. Pozik nabil eta jarraitu egingo dut. Mentalki behar dudana zerbitzatzen da. Atletismoak deskonektatzen

laguntzen dit, eta ikasketei aurre egiteko energia ematen dit.

Euskadiko kros liga egoera txar horri buelta ematen hasteko helburuagaz sortu zuten iaz. Lasterketak zirkuitu batean batzeak lagundu dezakeela uste duzu?

Lagundu dezake, bai, baina ligan gauza gehiago egin daitekeela uste dut. Beharbada sari ekonomikoak egotea pizgarri ona litzateke; liga irabazteagaitik edo Euskadiko txapelketa irabazteagaitik. Badakit atletismotik bizitzea oso gatxa edo ia ezinezkoa dena, eta badakit gaur

1.500 metroko proban 4:41 da nire markarik onena eta aurtengo denboraldian, posible bada, 4:40tik bajatzea gurako nuke

egungo krosaren errealitatea zein den, baina pizgarri ekonomiko gehiago egoteak lagunduko lukeela uste dut.

Aurrera begira, zer asmo duzu aurtengo denboraldian?

Pista prestatzen hasiko naiz. 1.500 eta 3.000 metroko probak. Distantzia horietan moldatzen naiz ondoen. Orainsu, Donostiako Euskadiko txapelketan hirugarren izan naiz 1.500eko proban. Brontzea irabazi nuen.

Dominen borrokan ibiltzea zenuen helburu?

Helburua nire marka hobetzea zen. Ez nuen lortu, baina oso pozik nago dominagaz. Nire markarik onena 4:41 da eta, posible bada, hori hobetzea eta 4:40tik bajatzea gura nuke aurten. Berdin 3.000 metrokoan; nire markarik onena 10:01 da eta hamar minututik jais-tea gustatuko litzaidake.



Oihane Irusta aurtengo Elgoibarko krosetan.

Badator Garaiko erreleboen duatloia, Euskal Herrian bakarra den proba

Otsailaren 18an egingo dute hirugarren aldia; izen ematea otsailaren 12ra arte dago zabalik



Talde misto bateko kide bi, 2019an eginiko lehenengo aldian.

DUATLOIA • JOSEBA DERTEANO

Duatloiak ohiko lasterketak dira Euskal Herrian, baina badago modalitate bat Garain bakarrik ikusi daitekeena: erreleboetako duatloia. Aurten hirugarren aldia antolatu dute otsailaren 18rako. Bertan, Euskadiko txapelketa egongo da jokoan.

Erreleboen duatloia taldeka-ko proba bat da, eta taldeko kide bakoitzak hiru atalak egin behar ditu: korrika kilometro bi, bizikletan zortzi kilometro

eta korrika beste kilometro bat. Emakumeen eta gizonen lasterketan, taldeak hirukoak izango dira. Lasterketa mistoan, emakumezko bik eta gizonezko bik osatu behar dute taldea. Hiru lasterketan, taldeetako partaideek klub berekoak izan behar dute, federatuak. Parte hartzea errazteko helburuz, lasterketa horiez gainera open modalitatea ere izango da, ez federatuentzat. Izen ematea triatloi.org webgunean egin daiteke, otsailaren 12ra arte.

Zornotzan, erlojupekoa

Garaiko duatloia bezperan, otsailaren 17an, beste proba bat jokatuko dute Zornotzan: taldekako erlojupeko duatloia. Proba biek asteburu osoko jardunaldia osatzen dute. Udalerri bakarrean antolatu beharrean, udalerri eta talde biren artean —Amorebieta-Etxanoko Triatloi taldea eta Garaiko Triatloi taldea— banatzen dituzte antolakuntza lanak. Espainiako txapelketa baino ez da antolatzen modu horretara.

Aitor Romerok nazioarteko lehenengo borrokaldia irabazi du kickboxing profesionalen

Herbehereetako Hemmers Gym gimnasio prestigjotsuko borrokalari hartu zuen mendean, Galdakaoko jaialdian



Aitor Romero, eskuman, joan zen asteburuko borrokaldian.

KICKBOXINGA • J.D.

Aitor Romero geroago eta ezagunago egiten dabil kickboxingean. Presarik barik eta pauso bakoitza ondo aukeratuz, horrelaxe darimate bere entrenatzaileek garaitar gaztearen ibilbidea —20 urte ditu—, eta, momentuz, fruituak ematen dabil. Joan zen asteburuan beste garaipen bat lortu zuen Galdakaoko jaialdian, bere profesional ibilbideko bigarrena iazko urrian debutatu zuenetik. Orain arteko garaipenik garrantzitsuenak izan zen, nazioarteko borrokalari bat hartu zuelako mendean lehenengoz. Aurkaria ez zen edo-

nor: Aria Omarzai, Herbehereetako Hemmers Gym gimnasioko borrokalari. Herrialde hartako gimnasiorik prestigjotsuena da. Esate baterako, Ramon Dekkers borrokalari —zortzi bider munduko txapelduna Muay Thain— gimnasio horretan zaildu zen.

Romerok Euskadiko kickboxing txapelketa parte hartuko du martxoan. Ondoren, apirilean, gerriko profesional bat jokoan egongo den jaialdi batean parte hartuko du, Indar Xport eta Laureano Fight Club-eko arduradunek aurreratu dutenez.

Jokaldia

Afizioa edo ofizioa

Txikitatik pilotarako zaletasuna izan dugunok beti izan dugu gure afizioa, noizbait, ofizio bilakatzeko ametsa. Hala ere, kirolari gutxi batzuek baino ez dute amets hori betetzen. Are, garai batean, kirolaren purutasuna mantentzeko asmoz, izaera zeharo amateurra zuten egun munduko kirol-espektakulu garrantzitsuenetarikoak direnek, besteak beste, Joko Olinpikoek. Hortaz, zerk bultzatzen gaitu kirol batean federatuta egon eta bertan lehiatzera? Diruak? Kirolarekiko maitasunak? Gizartearen edota inguruko onarpenak?

Gaur egun, pilota edota txirringularitza bezalako kirolatan, ohikoa bihurtu da 22 edo 23 urterekin maila profesionalera iritsi ez den gazteak ofizio bihurtu ez duen afizioa lagatzea. Baina, zer esan nahi du horrek?



Aitor Arabiourrutia Obregón
Trinketlari ohia

Orain ez urte asko ohikoa zen afizionatu mailan 30, 32 edota 35 urte baino gehiagoko pilotariak jokatzea

Badira hainbat pilotari, nahiz eta astebururo telebistan ez agertu, behar beste baloratzen ez ditugunak

Ordura arte egindako guztia soldata bat lortzeko baino ez duela egin? Lortu ez duen soldata horrez gain, ez dagoela erakargarria zaion ezer? Orain ez urte asko, pilotan esaterako, ohikoa zen afizionatu mailan 30, 32 edota 35 urte baino gehiagoko pilota-

riek jokatzea: horietako batzuk profesionaletan ibili ostean birkalifikatu eta pasio berarekin aritzen ziren; beste batzuk, ordea, profesionaletara iristerik ez, baina urte askoan txapelketaz txapelketa eta frontoiz frontoi aritzen ziren. Horrek, gainera, balio erantsi bat ematen zion afizionatu mailari, hainbat belaunalditako jendea aritzen baitzen, lehia sano eta oparo bat sortzeraino.

Orain, ordea, pena ematen dit gizarteak kirolari profesionala baino ez mirstea. Izan ere, badira hainbat pilotari, nahiz eta astebururo telebistan ez agertu, behar beste baloratzen ez ditugunak. Askok aldatu dira gauzak denbora gutxian, eta uste dut kirola ikuskizun profesionaletik haratago doan zerbait bezala ikusi beharko genukeela, belaunaldi berriek afizioa ofizio bihurtzeko aukera gehiago izan dezaten.

ETXETXO
INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmodurangesado.com
inmodurangesado@gmail.com

Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

// AUKERA

IURRETA: 3 logela eta komuna. Berriztatze. Balkoi itxia. **C.E.E=F 140.000 €**

IURRETA: 3 logela eta komuna duxarekin. Iggailua. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=G 155.000 €**

DURANGO: 111 m². 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela handia. **C.E.E=F 226.000 €**

// ALOKAIUAN EROSTKO AUKERAREKIN

ZALDIBAR: 80 m². Erdialdean. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Ganbara eta 2 kotxerentzako garajea. **C.E.E=F 175.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: 2 logela eta komuna. Etxe osoak kanpora ematen du. **C.E.E=G 95.000 €**

DURANGO: Apartamentua. Erdi berria. Logela, komuna eta egongela. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=F 142.500 €**

DURANGO: Berriztatutako pisua. 2 logela, komuna duxarekin, sukaldea eta egongela handia. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E= E 155.000 €**

KANPATORROSTETA: Atikoa. Sukalde-egongela, logela eta komuna duxarekin. Iggailua. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=E 193.000 €**

SASIKOIA: 131 m². 3 logela, 2 komun, sukaldea terrazarekin eta egongela handia. Eguzkitsua. Ezin hobea. Garaje itxia eta ganbara. Bizitzen sartzeko moduan. **310.000 €.**

KOMENTUKALEA: 70 m². 2 logela handiak, komuna, sukaldea despentsarekin eta egongela terrazarekin. **C.E.E=F 187.000 €**

ANTZO ESTEGIZ: 94 m². 4 logela, 2 komun eta egongela balkoiarekin. **C.E.E=F 227.000 €**

ANDRA MARI: 85 m². 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ganbara. **C.E.E=F 255.000 €**

ERRETENTXU: 85 m². 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Balkoia. Garaje itxia. **C.E.E=F 181.500 €**

ZALDIBAR: 85 m². 3 logela, komuna eta sukaldea balkoiarekin. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=G 164.000 €**

TRONPERRI: 118 m². 4 logela, 2 komun eta sukaldea eskegitokiarekin. Ganbara eta garaje zuzena. Txoko komunitarioa eta solariuma. **C.E.E=E 297.000 €**

MATIENA: 3 logela, komuna jakuziarekin, bainugela eta sukalde jantzia. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea. **C.E.E=E 180.000 €**

JUAN DE OLAZARAN: 85 m². Guztiz jantzia. 3 logela eta 2 komun. Bizitzen sartzeko moduan. Garajea eta trastelekua. **C.E.E=B 382.000 €**

// GARAJEAK SALGAI

MONAGOTORRE: Garajea. **13.000 €**

J. M. ALTUNA: Garajea. **16.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Erretentxu. 3 logela, sukaldea, komuna eta egongela. balkoia.

DURANGO: Fray Juan de Zumarraga. 2 logela, sukaldea, komuna, egongela eta despentsa. Iggailua. Berriztatze. Gas instalazioa. Ikuspegi ederrak.

DURANGO: Askatasun etorbidea. 3 logela, sukaldea, egongela, eskegitokia eta 2 komun. Garajea eta ganbara.

ABADIÑO

ABADIÑO: Etxeazpia. 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara.

BERRIZ

BERRIZ: 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta trastelekua.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

TABIRA: 1.445 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Laua.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatze. Lursailarekin. Ganbara.

BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatze. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatze. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatze. Kokapen izugarria

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatze. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

//BULEGOAK ALOKAIUAN

ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmodurangesado.com

IURRETA 64,4 m²
3 logela

BIDEBARRIETA: 64,4 m², egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia. Etxe erdiak kanpora ematen du (iparralde). Egoera onean baina hobekuntza batzuk behar ditu. Leku onean kokatua, zonalde berdeetatik eta zerbitzuzuneetatik gertu.

140.000 € C.E.E: E

DURANGO 70 m²
3 logela

ALDE ZAHARRA: 70 m². Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialdea-hegoaldea). Argitsua. Egoera onean. Erdigunean kokatua, zonalde berdeak eta zerbitzuzuneak.

116.000 € C.E.E: G

DURANGO 50 m²
logela
1

FAUSTEBEKOA: 50 m², egongela, sukalde jantzia, logela eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (mendebaldea). Zonalde berdeetatik eta zerbitzuzuneetatik gertu. Erdigunetik gertu. Garaje handia eta 7,5 m²-ko trastelekua.

189.000 € C.E.E: Bidean

DURANGO 85 m²
3 logela

ERAIKUNTZA BERRIA: 85 m²-tik aurrera. 3 logela. Lehenengo mailako materialak. Garajea eta trastelekua barne. Estreinatze.

310.000 €-tik aurrera + BEZ

MATIENA 66,83 m²
3 logela

LAUBIDETA: Sukalde amerikarra, egongela, 3 logela eta komuna duxarekin. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (hegoaldea) Argitsua. Egoera onean. Zonalde lasaia. Herriguneko sarrera irteeratik gertu.

204.500 € C.E.E: E

MATIENA

ERAIKUNTZA BERRIA: 91,06 m²-tik aurrera. 4 logela. Kalitate oneko materialak. Garajea eta trastelekua barne. Estreinatze.

280.000 €-tik aurrera + BEZ

//BERRIAK

IURRETA: 3 logela, sukaldea, egongela balkoi itxiarekin eta komuna. Iggailua. **140.000 / E.E.Z=E**

//DURANGO

ANTZO ESTEGIZ: 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Trastelekua. Iggailua. **LEHEN 192.000 € ORAIN 175.000 € / E.E.Z=F**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Iggailua. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 320.000 € ORAIN 298.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea eskegitokiargaz, egongela eta 2 komun. Iggailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Iggailua. Berriztatze. **LEHEN 150.000 € ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

JUAN DE OLAZARAN: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Iggailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

KALEBARRIA: 2 logela, egongela-sukaldea eta komuna. Iggailua. **195.000 € / E.E.Z=E**

KOMENTU KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Iggailua. Ganbara. **187.000 € / E.E.Z=E**

MONTORRETA KALEA: 3 solairutako pabilioia 1.309 m² inguruko azalerarekin. **728.000 € / E.E.Z= SALBUETSITA.**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitze 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 550.000 € ORAIN 495.000 €**

//BERRIZ

MURGOITIO AUZOA: Berreraikitze baserria lurzoruagaz. **LEHEN 280.000 € ORAIN 250.000€**

//GARAI

MOMOITIO AUZOA: Etxebizitza eraikitze lursailak. Aukera ezberdinak.

//IURRETA

DANTZARI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Iggailua. **LEHEN 153.000 € ORAIN 146.000€/ E.E.Z=E**

//IZURTZA

ELIZALDE AUZOA: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **LEHEN 620.000€ ORAIN 570.000€/ E.E.Z=E**

//OTXANDIO

ZELAIETA AUZOA: Baserria. 40.355 m²-ko lursaila. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. **LEHEN 348.000€ /ORAIN 280.000€ E.E.Z=G**

//ZALDIBAR

BOLATOKI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Iggailua. **130.000 € / E.E.Z=G**

//GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO

Durango eta Iurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuarekin.

Botikak

BARIKUA, 9 · 09:00-09:00	SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO
GAZTELUMENDI, J.A. ABASOLO 2 - DURANGO	IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	09:00-22:00
09:00-22:00	SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	ASTELEHENA, 12 · 09:00-09:00
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	UNAMUNZAGA, MURUETATORRE 2C - DURANGO
ZAPATUA, 10 · 09:00-09:00	IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
IRIGOIEN, BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA	09:00-22:00
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
09:00-13:30	SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO	MARTITZENA, 13 · 09:00-09:00
GAZTELUMENDI, J.A. ABASOLO 2 - DURANGO	CAMPILLO, MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO
BALENCIAGA, EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO	IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO	09:00-22:00
CAMPILLO, MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO	SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO	SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
DE DIEGO, INTXAURROND 22. - DURANGO	EGUAZTENA, 14 · 09:00-09:00
ETXEARRIA, MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO	GAZTELUMENDI, J.A. ABASOLO 2 - DURANGO
FARMAZIA MATIENA, TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO	IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
SANTAMARIA, ERREKAKALE 6. - ELORRIO	09:00-22:00
MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA	SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA	SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA	EGUENA, 15 · 09:00-09:00
GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA	BALENCIAGA, EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO
09:00-22:00	IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	09:00-22:00
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
DOMEKA, 11 · 09:00-09:00	SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



Zorionak guztioi!

GOZATU GOZOTEGIA

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozaturgozotegia



Zorionak! Gure etxeko futbolariak 11 urte egiten ditu, gizontxo bat zara. Askoi maite zaitugu. Alize, aita eta amatxu.



Otsailak 12, topa gaur nigitik! Eguzkiari beste buelta bat. Bizitzak eskeintzeko daukenari adi. Zorionak, **Alazne!** Beti zutik, beti aurrera. Gozatu egune. Gozatu bizitza.



Otsailaren 8an **Izarok** 16 urte egin zituen. Zorionak eta bizitzak irrifar handi batekin har zaitzala.



Abadiñoko sorgintxo politenak bederatzirte egiten dauz. Zorionak eta musu asko etxekoen partez, bereziki asko maite zaituzten Aratzen eta Malenen partez.

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 7° / 12° ☁

ASTELEHENA ↓ 6° / 15° ☁

EGUAZTENA ↓ 8° / 19° ☁

DOMEKA ↓ 6° / 12° ☁

MARTITZENA ↓ 7° / 15° ☁

EGUENA ↓ 10° / 19° ☁

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

"Mañariarrek eginiko gonbidapenak asko poztu gaitu"

Mañariko karnabalek bisitari bereziak izango dituzte aurten. Kafraga elkarrekin gonbidatuta, Sasi-berezi eta Mozolo herrira jaitsiko dira San Martin inguruan duten gordelekutik



MAÑARIA • AITZIBER BASAURI

Errose Bustintzaren *Jentilen bolalekua* ipuina jatorri hartuta, herrigune osoa eszenatoki izango duen kale ikuskizuna prestatu dute Mañarian biharko. Ipuinak kontatzen duenez, behin, jentil batzuk bola-jokoan ei zebiltzan Untzillatx inguruan. Eurei gura barik ihes eginiko bola batek hainbat zuhaitz eraitsi zuen eta eurretari batek Kukin artzaina jo eta hil zuen. Jentilak estutu eta penatu egin ziren, estimuan zutelako Kukin, egunero ardi-esnea eroaten zien artzaina. Eginahalak eginagaitik ezin izan zuten artzaina biztu, eta euren eskuekin mutil berri bat egitea pentsatu zuten: zotzeko oin-behatzekin, arto-lastoz-

ko besoekin, bildots-larruzko sabelagaz, zurezko eskuekin... Inguruan hegan zebilen mozolo bat barre-zantzoka hasi zen mutil sortuberriaren itxura ikusi zuenean eta Sasi-berezi izena ipini zion. Beraz, bi izango dira protagonista nagusiak: Sasi-berezi artzaina (Aitziber Areitio) eta Mozolo (Onintza Gaztelu), bere aurkari maltzurra. Eurekin batera, aurpegi zuriak, aurpegi beltzak eta gehiago irtengo dira, 17:00etan, karnabalei loturiko istorioa kontatzera.

Egun handia duzue bihar Mañarian.

Sasi-berezi: Lehenengoz aurkeztuko gara jendaurrean, baina horrek ez du esan gura mañariarrekin inoiz

ere ez garenik kontaktuan egon. Aspaldi etorri ziren kobazulora Pitxitxi ahuntzaren bila, eta, hainbat urtean eurekin egon ondoren, iaz berriro taldera ekartzea lortu nuen. Hori eskertzeko, zer gutxiago ahuntz-esnea eramatea baino, karnabaletan tostadak egiteko. Herrira jaisteak asko pozten nau. Baliteke nire itxurak etxeko txikiak apur bat beldurtzea. Baina maitekorra naiz eta denen lagun izan gura nuke. Bestelakoa da Mozolo. Harek nitaz barre egiten du!

Mozolo: Sasi-berezi eta bere lagunak zelatatzen gaude aurpegi zuriak eta ni, esneontzia lapurtzeko prest. Inondik inora ere ez dugu utziko

Sasi-berezik eta aurpegi beltzek esnea eramatea. Ea zelan hartzen gaituzten; trabak ipinita, pentsatzen dut.

Koplak ere egin dizkizute, eta herritarrek kalera irten daitezten abestuko ditu pregoilariak.

Sasi-berezi: Bai, gure istorioa herrira zabaltzeko eta ezagutarazteko koplak dira. Eta ni ere joango naiz pregoilariagaz, herritarrek gugaz plazan batzera gonbidatzeko. Kobazulora etorri zirenean esan

“Koplak egin dituzte gure istorioa herrira zabaltzeko eta ezagutarazteko SASI-BEREZI”

zidatenez, antzinako inauteriak modu xumean berreskuratzea izan dute helburu. Errose Bustintza idazlearen liburu batean agertzen ei gara, eta hortik hartu zuten ideia inauterietan Mañarira gonbidatzeko.

Kafraga elkartetik irten zen ideia, eta herritarren eta herriko elkarrekin lankidetzari eskerrak gorpuztu dute. Zelan hartu zenuten gonbidapena?

Mozolo: Ondo! Gure istorioa ahaztuta egon delako. Gainera, poztekoa da gutaz gogoratu izana, istorioko maltzurak izanik... Lumei hautsa kendu eta distira emango diegu biharko; esneontzia lortzeko estrategia ere landu dugu.

Sasi-berezi: Askok poztu gara, bai. Nik ere festa-jantzirik onenak ipiniko ditut; prest ditut alkandora eta praka berriak.

Beste ezer gehitu gura duzue?

Sasi-berezi: Ez naiz Mozoloz eta bere aliatuez fio, eta laguntza beharko dugu. Beraz, mañariarrek parte hartzea animatu gura ditugu, egun polita izango da eta. Eta ez da tostadarik faltako. Eskerrak eman behar dizkiet horretan ibiliko diren herritarrei. ANBOTOk irakurleek ere aukera paregabea dute gu ezagutzeko.

Mozolo: Sasi-berezik herria alde duenez, gainerakoak gure taldera batzera animatzen ditut.

Lauhortza

Sergio Murillo Corzo
Ekonomialaria



Indar barriz, egiteko eta ekiteko

Aste hau Santa Ageda koplaren martxan hasi dugu eta mozorrotzeko gogoz ekingo deutsagu asteburuari. Jai giro horretan murgildu orduko, zer pentsatu emoteko asmoz, zutabe honetara nire hausnarketaxoa partekatzera nator.

Aberria ez da gauza abstraktua; niretzat, maite dodazan pertsonen osotzen dabe aberria. Neurri baten, familiaren antza dauka aberriak... ez da bakarra, ezta onena ere, eta ahuleziak igerten deusadaz... baina asko maite dot. Hori horrela izanagatik ere, edo hobeto esanda, horregatik hain zuzen ere, besteentzen aberria ere errespetatu eta adeitasunez tratatzera behartuta sentitzen naz.

Aberri bezala, zoriak garai batzuk bizitzea egokitu deusku. Niri eta zeuri, irakurle estimatu hori, honexek jagokuz. Aberriagintzan, familiagaz bezala, garai bakoitzean errealitateari konpromiso erantzutea jagoku, eskuzabaltasunez, maitasunaren adierazle nagusi bezala. Ez dago benetako maitasunaren neurri hoberik, egitea eta ekitea baino.

Sarri askotan, konpromiso falta argudio ideologikoetan mozorrotzen da... eta hortxe dago historiaren epaiaren langa. Langa gaindituz, garai historiko bakoitzean aberriak izan dauzan erronkei heldu eta erantzukizunetik tiraka ibili diranak dagoz, beti, arrakasta gehiagogaz edo gitxiagogaz; egindakoaren damurik ez daukienak eta eukiko ez dabenak. Horreexek gura dodaz nik nire bizitzan, familian eta aberriagintzan. Izan ere, aberria eta familia ez dira perfektuak, baina maite doguzanak dira. Horregatik, indar barriz, egiteko eta ekiteko garaia da.

**ESKELAK/ URTEURRENAK/
OROIGARRIAK/ ESKER ONAK
ANBOTON**

75€

• Ehorztetxearen bitartez

• Anbotoren bitartez:

946 816 558 · anboto@anboto.org

anboto.org/eskelak

Anbotokideek deskontua izango dute.

